



Nafarroako  
transexualei laguntzeko  
eta arreta emateko  
gidaliburua







## IZENBURUA

Nafarroako transexualei laguntzeko eta arreta emateko gidaliburua

## PROIEKTUAREN SUSTAPENA ETA KOORDINAZIOA

Nafarroako Berdintasunerako Institutua  
Alondegí kalea 1, 2. solairua. 31002 Iruñea

## EGILEAK

Pilar Miqueo Miqueo  
Rut Iturbide Rodrigo

## PROIEKTU HAU EGITEKO IZANDAKO LANKIDETZA

Gida hau egiten parte hartu duten pertsonak Transexualei Arreta emateko Batzordekideak dira, beren Departamentu edo taldeetako ordezkariak dira:

- Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua  
Nafarroako Berdintasunerako Institutua
  - Eskubide Sozialetako Departamentua  
Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia  
Servicio Navarro de Empleo-Lansare  
Gizarteratzeko eta Babes Sozialerako Zuzendaritza Nagusia
  - Hezkuntza Departamentua  
Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusia
  - Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentua  
Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua
  - Osasun Departamentua  
Servicio Navarro de Salud-Osasunbidea
  - Kattalingune LGTBI Zerbitzua
  - Chrysallis Euskal Herria
  - Ilota Ledo Pertsona transexualen eta gertuko en Elkartea
- Parte hartu duten beste erakunde batzuk:**
- Transkolore Nafarroako transexualen eta gertuko en elkartea
  - Harrotu LGTBI zentroa

## ARGITARATZAILEA

Nafarroako Gobernua  
Nafarroako Berdintasunerako Institutua

## DISEINUA

Pilar Miqueo, Rut Iturbide eta Iratxe Esparza

## MAKETAZIOA

Iratxe Esparza Pertika (Punto y Seguido)

## URTEA 2018ko maiatza

## INPRIMAKETA

Gráficas Lizarra


## LEGE GORDAILUA

NA 941-2018

Nafarroako  
transexualei laguntzeko  
eta arreta emateko  
gidaliburua

---





# AURKIBIDEA

## AURKEZPENA

03

## ESPARRU KONTZEPTUALA. ZER DEN ZER


- Sarrera 05
- Testuinguru kulturala eta soziala 07
- Arau esparrua 09
- Esparru kontzeptuala: gako hitz batzuk 11
- Giza eskubideak, eskubide sexualak, aniztasuna eta despatologizazioa 17
- Gidaren xedea eta helburuak 19

## ERAKUNDEEN ETA ELKARTEEN BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK


- Familia esparrua 23
- Hezkuntza esparrua 27
- Osasun esparrua 33
- Gizarte Zerbitzuak 41
- Gazteria 47
- Enplegua 51
- Nafarroako berdintasunerako Institutua (NABI) 57
- Kattalingune. LGTBI Informazio eta Arretarako Zerbitzu Publikoa. Nafarroako Gobernua 59
- Harrotu, LGTBI Gunea. Iruñeko Udala 63
- Transexualen eta familien elkarteak:
  - Chrysallis Euskal Herria 67
  - Transkolore 71
  - Kattalingorri 73

## LABURPENA

76







## AURKEZPENA

Sexu eta/edo genero identitatea dela eta herritar askok jasaten dituen askotariko diskriminazioak gainditzeko neurriak sustatzeko, bultzatzeko eta ezagutarazteko Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren (NABI) nahiri erantzuten dio "Transexualei laguntzeko eta arreta emateko Gidaliburu" honek.

Azken urteotan pertsona ororen eskubideak lortzeko bidean aurrera egin badugu ere, behar baino gehiagotan geratu dira transexualak eta transgeneroak sentsibilizazio ekintzetatik kanpora nola hezkuntza esparruan hala osasun, gizarte, kultura eta lan esparruetan.

Gobernu honek, NABIren bitartez, une oro bilatu du LGTBI taldeen eskaerak aintzat hartzea erakundeen inplikazioari dagokionez -zerbitzuen eta legeen esparruan- eta giza eskubideak izaera unibertsal batez babesteari dagokionez.

Hain zuzen ere horregatik behar ditu konpromiso argiak eta irmoak Nafarroako Foru Komunitatean sexu edo genero identitatearekiko, orientazio sexualarengatik eta genero adierazpenarengatik diskriminazioaren aurkako politika publikoen inplementazioak. Horretarako, gaur egun Nafarroako Gobernuaren Departamentu guztietan eta tokiko gainerako Administrazioetan diskriminazio mota ororen aurka egiten ari garen lana izango dugu abiapuntu. Eta abiapuntu horretatik abiatuz, modu transbertsalean heldu behar diogu gaiari, hau da, berdintasunean oinarritutako ardatz bat itxuratuko dugu politika eta sektore guztietan.

2016an Transexualei Arreta emateko Batzordea sortu genuen Nafarroako Foru Komunitatean. Hausnartzeko, hazteko, erantzuten jakiteko eta ikuspegiak zabaltzeko balio izan digun prozesu parte hartzailea bizi izan dugu. Eta aldatzeko ere balio izan digu.

Gidaliburu hau egitea izan da Batzorde honen helburu garrantzitsuenetako bat, eta izenburuak berak adierazten duen bezala, transexualak, beren familiak eta gaian interesatuta dauden pertsona guztiak lagunduta eta babestuta sentitzea eta, hasteko, gaian kokatuko gaituen esparru kontzeptuala, testuinguru kulturala eta soziala eta araudia bilduko dituen tresna praktikoa bat edukitzea bilatu da. Gidaliburuaren bigarren zatian biltzen dira Nafarroako herritarrok administrazio publikoan dauzkagun zerbitzuak eta transexualen eta familien taldeei buruzko informazioa.

Une honetan Nafarroako Gobernuako Departamentuetan, NABIn bertan, transexualen eta beren familien taldeetan eta Kattalingune eta Harrotu zerbitzu publikoetan transexualei arreta emateko egiten ari garen lanaren isla da gidaliburuan jasotako informazioa. Hortaz, gidaliburu bizia da, aldaketak eta berrikuntzak izan ditzakeen informazioa eskaintzen duen gidaliburu bizia.

Gaur lege esparru berri eta handinahi bat dugu, LGTBI+ pertsonen Berdintasun Sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea, pertsona transexualenganako eta transgeneroenganako arretaren ikuspegi despatologikoa zehazten duena eta sexu eta genero identitatearen autodeterminazio askea ardatz duten laguntza eta arreta eskaintzen dituena. Jendarte gisa hazten laguntzen digun lorpen handia.

Guztion artean pixkanaka gainditzen ari gara aniztasunari leku egiten ez dioten patriarkatuak eta agindu heteronormatiboak ezartzen diguten ikuspegi bakarra.


Oraindik bide luzea dugu egiteko, eta NABIk elkarrekin egitea nahi du, denok norako berean: administrazio publikoek -giza eskubideak inolako bazterketarik gabe errespetatuak izatea zaindu behar baitute-, LGTBI taldeek eta gainerako herritarrek.

Mertxe Leránóz Goñi



Nafarroako Berdintasunerako Institutuko Zuzendari Kudeatzailea





# ESPARRU KONTZEPTUALA. ZER DEN ZER

## Sarrera

Transexualitatea esperientzia **unibertsala** da, betidanik izan da, kultura guztietan.

Kontzeptu horrek adierazten du nola pertsona baten sexua (sexu sentitua) ez datorren bat jaiotakoan esleitu zitzaion sexuarekin, hain zuzen ere genitalei erreparatuta esleitu zitzaionarekin. Sexu identitateaz ari da (neska naiz, mutikoa naiz, emakumea naiz, gizona naiz); testu batzuetan genero identitate ere esaten zaio.

Transexualitatea **desafioa** da gure jendartearentzat; izan ere, oraindik ezezaguna eta arbuigarria zaigu emakume edo gizon izatearen **arautik** ateratzen dena: arau horren arabera, norberak bere "sexuaren araberako" genitalak izan behar ditu (bulba eta klitoria emakumeak eta barrabilak eta zakila gizonak), "dagokion" generoa izan behar du (femeninoa emakumeak, eta maskulinoa gizonak), eta, gainera, heterosexuala behar du izan, hau da, kontrako sexukoenganako erakarpen sexuala sentitu behar du. Hala eta guztiz ere, gero eta jendarte irekiagoa dugu **aniztasun** sexual eta afektiboen aurrean. Arau hori norberarengan eta gizarte mailan azkar txertatu bada ere, egia ere bada pertsona bakoitzaren **berezitasuna** azpimarratu dezakegula bere bizitzaren ibilbidean, bere identitateetan eta biografian barrena egindako ibilbidean.


Egoera hori ulertzen ez zuten gizarte, politika, lege, osasun, hezkuntza erlijio, lanbide eta norberaren jarrerekin eta praktikekin eraiki da gure kultura, eta jarrera eta praktika horiek nabarmendu edo estigmatizatu egin dituzte transexualak. Hala eta guztiz ere, transexualek eta beren ingurukoek batera lan egiteko erabakia hartu dute herritar gisa dagozkien eskubideak bermatzeko eta ezagutzak eta esperientziak ezagutarazten laguntzeko. Beraz, iritsi da orain arteko jarrera historiko debekatzailleak, sexistak, binarioak (emakumea-gizona) eta indarkeriazkoak amaitzeko eta transexualen eskubide eta dibertsitatearen aurrean **ikusgarritasuna** eta sentsibilitatea handitzeko unea.

**Nahitaezko** desafioa dugu. Transexualitatearen kontrako jarrera (transfobia) onarpen bihurtzeko eta dibertsitatea balioesteko, beharrezkoa da **berdintasun** handiagoko jendarte baterantz jotzea. Harrera oneko jendarte, plurala eta aberatsa, eraikitzeko, eraldaketa bultzatu behar da harremanetan, norberaren baitan, lanbidearen esparruan eta jendartean. Eta, ikuspegi horrekin, **aukera** dugu egiturazko arazoei erantzun kolektiboa emateko, arazo horiek maiz bizi izan baitira arazo pertsonal gisa, eta bakardadean ez gutxitan.

Nafarroan, azken bi hamarkadetan, pixkanaka gora egin du jendartean, erakundeetan eta lan esparruan sentsibilizazioak. Gero eta gehiago dira jarrera positiboak erakusten dituzten testuinguru sozialak eta profesionalak, halako balioa ematen diete giza esperientziek erakusten dizkiguten aberastasunari eta aniztasunari, horien artean transexualitateari.

Transexualentzako, zalantzak dauzkatenentzako eta gertu daudenentzako (adingabeen familiak eta arduradunak, ingurunea) **tresna** izan nahi du gidaliburu honek, une honetan edo etorkizunean adin guztietako transexualekin lan egiteko asmoa dutenentzako eta informazio gehiago eta hobeia izan nahi dutenentzako.





## Testuinguru kulturala eta soziala

Transexualitatea norberak bizi du baina **gizarte egitura** hierarkiko baten baitan, sexua/generoa sisteman oinarrituan, botereen banaketa desberdinean oinarrituan, sistema patriarkalean eta heteronormatiboan, hasiera batean alde sexualak baizik ez direnean desberdintasunak eta diskriminazioa eragiten dituen sisteman.


Botere harremanak finkatzeko joera dugu, menderatzaileak eta mendekoak bereizten dituztenak, dikotomia sexualean, binarismoan (gizona/emakumea; maskulinoa/femeninoa; eguzkia/ilargia; aktiboa/pasiboa) eta heterosexualitatean oinarrituak, gizartean jarduteko arau gisa finkatuak. Halaxe eraikitzen da bizitzaren esparru askotan diskriminazioa eragiten duen eta herritar ez gutxiren aurkako egiturazko indarkeriak eragiten dituen integrazioa-bazterketa dinamika soziala, arazo publiko bihurtzen duena.

Testuinguru kultural horretan, transexualitatearen **ikusgarritasuna aukera da** baterako **hausnarketa soziala egiteko**, egungo gizarte egitura zalantzaz jartzeaz gain, gizarte paradigmaren eta norberaren eta komunitatearen artean jarduteko eraren aldaketa ere proposatzen baitu.

Bestalde, gure gizartearen oinarri demokratikoa zalantzan jartzeaz gain, **transfobiak** zaugarritasun handiagoa eragin dezake herritar batzuen aurrean eta hainbat bizi esparrutan (familia, heziketa, enplegua, osasuna). Ildo horretatik, era berean beharrezkoa da gizarte mailako egiturazko arazoei erantzun kolektiboa ematea, protokoloak, gidaliburuak, tresnak, araudi esparrua eta beste batzuk eskainiz.

Beraz, behar-beharrezkoa da mundu anitz, aberats eta kritiko batean **nahi dugun gizarte bizitzari buruzko baterako hausnarketa egiteko gunea**.





## Arau esparrua

Legeen bilakaera oro har gizartearen jarrera aldaketaren adierazle bikaina da.

Zorionez, transexualitatearekin zerikusia duen legeria hobetu egin da azken hamarkadetan LGBTBI taldeek egindako kritika sozialei eta eskaerei erantzuteko. Lehen delitua zen, geroago gaixotasuna, eta orain "normaltasunaren" aldaera da. 1954. urteaz geroztik, alfer eta gaizkileen aurkako lege frankista aplikatzen zen, eta espetxealdiak, zaintzapekoaldiak eta isunak proposatzen zituen lege horrek transexualei begira. 70. urteetan, teknika konduktista abertsiboen bitartez, birgaitzeko ikuspegia nagusituko zen, eta 80. urteetan despenalizatu egin zituzten kirurgia genitalen operazioak. Geroago, 2007an, legeztatu egin zizkieten izen aldaketa eta sexuaren aipamena erregistroetan kirurgia genitala egina zuten transexualei.

Zehazki, hauexek dira araudi nagusiak, transexualitateari dagokionez:

### a. Nazioarte mailan

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (NBE, 1948). 2. artikuluan zehazten da gizaki orori dagozkiola aldarrikapen horretan adierazitako eskubide eta askatasun guztiak, eta ez dela inor ere bereziko sexu edo bestelako baldintzak direla eta.

Yogyakartako Printzipioak (2006), giza eskubideei buruzko nazioarteko legeriaren aplikazioari buruzkoa, orientazio sexualaren (edo nahiaren orientazioaren) eta genero identitatearen (testu honetan sexu identitatea) esparruan, LGBTBI pertsonen (lesbianen, gayen, transexualei, bisexualei eta intersexualei) eskubide horiek bermatzeko.

Giza Eskubideei, orientazio sexualari eta genero identitateari buruzko Giza Eskubideen Kontseiluaren 2011ko 17/19 ebazpena; ebazpen horrek formalki arbuiatzen ditu mundu osoan orientazio sexuala eta genero identitatea tarteko gertatzen diren indarkeria edo diskriminazio ekintzak oro.

### b. Europa mailan

Europako Legebiltzarraren Ebazpena (1989-9-12), pertsona transexualekiko diskriminazioari buruzkoa; bertan onartu egiten da gizartearen arazoa dela, eta dei egiten zaie Estatu kideei haien eskubideak, prestazioak, tratamenduak, laneko berdintasuna, identitatearen egiaztagiria eta abar babesteko.

Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna (2000). Bere 21. artikuluan espresuki debekatzen ditu diskriminazio guztiak, eta bereziki sexu eta orientazio sexualaren kariatara praktikaturakoa.

Europar Kontseiluko Batzarrak onartutako ebazpena (2015-4-22), Europako pertsona transexualen aurkako diskriminazioari buruzkoa.

### c. Estatu mailan

Espainiako Konstituzioa (1978). Bere 14. eta 9.2 artikuluetan legearen aurreko berdintasuna finkatzen du, eta botere publikoek askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izateko baldintzak sustatu behar dituztela zehazten du.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, genero indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriak zehazten dituena.

Martxoaren 15eko 3/2007 Legea, pertsonen sexuari buruzko aipamena erregistroan zuzentzeko bidea arautzen duena.

Martxoaren 22ko 3/2007 Lege organikoa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzekoa.

### d. Erkidego mailan


Azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legea, Nafarroako gizonen eta emakumeen aukera berdintasuna sustatzekoa.

Ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa.

Gaur egun, urratsak egiten ari gara pertsona transexualen eskubideak bermatzeko eta **berdintasun formala** lortzeko bidean, nahiz eta oraindik ere eztabaida bizia dagoen sexua eta izena erregistroetan aldatzeko baldintzen inguruan eta osasun alorreko tratamendu jakin batzuk jasotzeko garaian. Legeak, printzipioak eta akordioak oso beharrezkoak diren arren, ez dira aski **benetako berdintasuna** ziurtatzeko, gizarte eraldaketa gertatzeko ezinbestekoak baitira kontzientzia, prestakuntza eta herritar guztiok bere osotasunean eraikitzen dugun gizarte eredu aldatzea.







## Esparru kontzeptuala: gako hitz batzuk

Ezagutza sortzeko, izena ematen diogu ulertzen saiatzen garen horri. Gure tradizioan, ikasi nahi duguna sailkatzen, bereizten eta zatikatzen eraikitzen dugu ezagutza. Ikuspegi horretatik, argitu baino nahasi egin dezakete hitzek. Aniztasun sexuala azaltzeko erabiltzen ditugun hitz askori gertatzen zaie hori: esleitutako sexua, sexu psikologikoa, sexu soziala, sexu identitatea, transexualitatea, transgeneroa, transa, genero identitatea, maskulinitasuna, feminitasuna, androginia, nahiaren orientazioa, orientazio sexuala, lesbianismoa, homosexualitatea, bisexualitatea, asexualitatea, LGTBI, LGTBI+, eta beste hainbeste.

Beste ikuspegi batetik begiratu dezakegu, norako guztiak ikusiko dituen begirada bat asmatu dezakegu, jakin-minez, epairik gabe. Hasieran zaila izan liteke, pentsamolde dikotomikoa (emakumea-gizona, 0-1, ona-txarra) eta sexuari eta sexualitateari dagokien mentalitate arauemailea nagusitzen delako: behar duena, "berezkoa", espero dena, emakumea edo gizona izatea da (esleitutakoaren arabera), heterosexuala, eta horrek ez du aldatu behar. Baina badakigu hori ez dela horrela.

Aitzitik, gizarte presioa eta jada ikasitakoa (gizarte eta sexu mailako aginduak) baztertzeko eta albora uzteko ariketa zaila baina guztiz onuragarria egiten badugu, ulertu egingo dugu kontua, eta espazio handiagoa izango da pertsonarentzat eta bere aniztasunarentzat. Bestea onartzeko hizkeratik, epairik egin gabe erreparatetik, entzun egin dezakegu, eta harritu egingo gara bizitako esperientziatik hitz egiten denean sortzen diren hitzekin.

### a. Pertsona batek sentitzen duen sexua esleitu zaion sexuarekin bat ez datorrenean gertatzen da transexualitatea

Genitalei erreparatuta edo emakumea haurdun ote dagoen jakiteko proba egitean (amniozentesia) esleitzen diogu sexua jaioberriari. Pertsona helduetan beste ezaugarri batzuei erreparatzen diegu sexua esleitzeko, esate baterako, bizarrari, zintzur sagarrari, ahotsaren tonuari, bularrei eta beste batzuei. Eta behin baino gehiagotan egiaztatuko genuen bezala, kale egin dezakegu!

Oso konplexua da sexua osatzeko prozesua, eta genitalez eta kromosomez gain beste elementu batzuek hartzen dute parte prozesu horretan, besteak beste, elementu gonadalak, hormonalak, burmuinetakoak, gorputzetakoak eta gizarte eta kultura mailakoak. Horietatik guztietatik, norberaren burua sailkatzeko epaia da funtsezko elementua, pertsona batek sexu baten jabe delako eta hala sentitzen duelako pertzepzioa: horixe da sexuazio zerebrala, ikusten ez dena (gizon sentitzen naiz, emakume sentitzen naiz).

Neskatoak edo mutikoak, gizonak edo emakumeak, "... naiz" esaten dutenean gertatzen da. Eta horixe da sexu identitatea (genero identitate esaten diote beste testu batzuetan). Ez du pertsonak hautatzen, nukleo zerebral baten jaio aurreko hormonazioaren araberakoa baita. Eta baliteke bat ez etortzea aipatu ditugun beste sexuazio mailekin: esate baterako, badira bular handiak dituzten gizonak eta bular txikiak dituzten emakumeak, badira gorputzean ile ugari duten emakumeak eta bizirik ez duten gizonak, badira zakila duten emakumeak eta bulba duten gizonak.

Eta nola jakin dezakegu? Pertsonak berak esanda. Egonkorra izango da emakume edo gizon izatea jakitea, ez da bizitzan zehar hori aldatuko, baina bere esanahiak, xehetasunak eta adierazpideak eraldatu egingo dira bizitzan zehar, eta emakume izateko eta gizon izateko modu berezian islatuko dira.


Ez dugu nahasi behar hurrek modu sinbolikoan jolastu dezaketenarekin, beste sexukoak direlako plantak egiten dituztenean, berdin-berdin egiten baitute animaliarena edo fikziozko pertsonaiena. Rol joko horiek ez dute inolako zerikusirik norberaren identitate sexualaren adierazpenarekin.

Baina ingurunetik ukatu egiten badugu edo ez badugu hurraren, gaztearen, helduaren edo adintsuaren identitate sexualaren adierazpena onartzen, arazoak izaten has daiteke bere identitate sexuala adierazteko, eta zenbaitetan galdu egin dezake bere burua azaltzeko gaitasuna.

Estutasun edo larrimin gisa sufritu dezakete beste pertsonok beren identitate sexualaren arabera bizitzea ukatzen badiegu edo eragozten badiegu: ni, familia, bikote eta abar naizen aldetik, bere genitalei begira nago, bere gorputzaren ezaugarriari begira edo izenari erreparatzen: nire alaba edo semea, nire laguna edo bikotea, barrutik ari da sentitzen, "badaki" nor den, eta bere identitate sexuala, bere sexua adierazten ari da, nor den alegia. Haurrak sentitzen duena sarri askotan adierazi nahi izaten du arropetan, jostailuetan, jolasetan, jokaeretan eta generoaren portaeraren beste adierazpideetan, egiazki sexuaren araberako generoko gizarte aginduak baitira, desberdinak kulturen arabera (esate baterako, neskatzak panpinekin jolastea eta mutikoak futbolekin).

Izan ere, oker egon liteke osasun zerbitzuak, familiak eta inguruneak esleitzen dugun sexua. Horregatik, hain zuzen ere, ezinbestekoa da hurrei, gazteei, helduei eta adintsuei arretaz entzutea beren identitate sexualaz mintzo direnean, orduan azaltzen baitute beste pertsonok ezin ikus dezakeguna: beren identitate sexual sentitua, beren sexua.





Beraz, sexua genitalak ez direla eta identitate sexuala geure nortasunaren funtsezko osagaia dela onartzean datza aurreneko aldaketa kulturala. Nahiz eta ez den geure bizitza antolatzen duen bakarra: oso aintzat hartzekoak dira generoa, kultura, adina, lanbidea, erlijioa eta beste batzuk.

#### **b. Aniztasun sexualaren atal naturala da transexualitatea, aldaketa sozialak planteatzen dizkigu eta zalantzan jartzen du gure sen onaren zati bat**

Pertsona batek sentitzen duen sexua eta beste pertsonak esleitzen diotena bat ez datozenean gertatzen da transexualitatea: beste pertsonak jarritako etiketan dago akatsa, lehen ere esan dugun bezala sexualitatearen aniztasunak ekar baitezake bulba duten gizonak eta zakila duten emakumeak izatea. Jarritako etiketa horrek baditu ondorioak, esate baterako, erregistroan dagokion sexuarekin ez baizik eta beste sexuarekin inskribatuta egotea, eta izena baztertzea izen hori beste sexu batekin lotzen delako.

Egoera hori psikologiaren edo medikuntzaren esparrutik diagnostikatzeko saioak egiten direnean, generoko disforia esaten diote. Hortaz, transexualitatearen ikuspegi patologizatzaile batetik erabiltzen dira hitz horiek. Hemen azpimarratu beharra dago emakume edo gizon zisexuala izatea (sexu sentitua eta sexu esleitua bat datozenean) ez dela diagnostikatzen.

#### **Aniztasun gehiago. Ikus dezagun**

Intersexualitatearen arabera gizon eta emakume guztiok, hein handiagoan edo txikiagoan, bi sexuen ezaugarriak dauzkagu, izan ere, antzeko sexuazio prozesuak partekatzen ditugu. Aitzitik, bestela da pertsona intersexual bat deskribatzen denean: genitalak "anbiguoak" direla esan ohi da, beren morfologia ez zaiela zehazki genital maskulinoei edo femeninoei egokitzen.

Pertsona transgeneroa, beren genitalak maskulinoak izan ala femeninoak, ez da gizon gisa identifikatzen, ez eta emakume gisa ere, edo bietan identifikatzen da aldi berean. Puntu honetan oso kontuan eduki behar da gaur egun sexologia, soziologia, medikuntza eta beste jakintza batzuetan "sexu" eta "genero" hitzen artean bizi den eztabaida.

Trantsizio sozial esaten zaio haur batek, gazte batek, heldu batek edo adintsu batek besteen begietara bere benetako sexuarekin ikusita eta ezagututa gertatzeko prozesuari, bere identitate sexualari dagokion moduan eta ez jaiotzean esleitu zitzaion moduan ikusita eta ezagututa gertatzeko prozesuari; prozesu horretan, pertsona horrek utzi egiten dio esleitutako sexuaren arabera portatzeari, eta dagokion sexuaren arabera portatzen hasten da.


Beharrezkoa da nortasun sexuala eta irrika sexualaren orientazioa (orientazio sexuala), pertsonak sentitzen duen erakarpen erotikoa, emozionala eta afektiboa, behar bezala bereiztea. Batez ere beste sexuko pertsonenganako erakarpen erotikoa sentitu dezakegu (orientazio heterosexuala), edo sexu bereko pertsonenganakoa (orientazio erotikoa homosexuala: emakumeen kasuan lesbiana hitza erabiltzen da; gizonen kasuan gay hitza), edo bi sexuetako pertsonenganakoa (orientazio bisexuala), edo orientazio erotikoa apala edo hutsa sentitzea (orientazio asexuala). Besteek bezala, pertsona transexualek batez ere heterosexualenganako erakarpen erotikoa sentitu dezakete, edo homosexualenganakoa, edo bisexualenganakoa edo baliteke erakarpen erotikorik ez izatea.

"Sexu" eta "genero" kontzeptuek alde esanguratsuak adierazten dituzte XXI. mende hasieran. Emakume eta gizon izateari egiten dio erreferentzia sexu hitzak (transexualak, zisexualak). Lehen ere esan dugun bezala, guztiok bi sexuen ezaugarriekin. Kulturaren ikuspegitik sexu bakoitzarekin lotzen diren ezaugarri, adierazpide eta balioen multzoari esaten zaio genero; haietako asko ikasi egiten dira eta haurtzarotik barneratzen dira gizarte agindu gisa (estereotipoak eta rolak). Horrenbestez, kultura jakin batek sexu bakoitzaren bereizgarri gisa zehazten duen rolaekin bat etor liteke generoa. Eta bereizgarri horiek aldatu egin dira denboraren eta gizartearen arabera.

Azkenik, hitz bakunenak eta arruntenak, adibidez femeninoa eta maskulinoa hitzak, argitu egin behar dira kontzeptualki. "Femenino" hitzak gizarte baten arabera emakumeek berezkozat behar dutenari egiten dio erreferentzia, eta gizonen artean baino emakumeen artean sarriago gertatzen denari ere bai. Beste horrenbeste esan genezake "maskulino" hitzaren inguruan, hori bai, kasu horretan gizonei aplikaturik. Berezko ezaugarriak izateak esan nahi du ezaugarri horiek nagusi direla, baina ez dute zertan beti gertatu. Eta ez du esan nahi soilik emakumeen edo soilik gizonen ezaugarriak direnik, ez eta denboran aldaezinak direnik ere. Izan ere, ezaugarri femeninoak eta maskulinoak edozein proportziotan eta neurritan adierazten eta lantzen dituen da pertsona "androginoa".

Biologikoak eta kulturarekiko aski independenteak dira ezaugarri sexual batzuk (esate baterako, genitalen tamaina eta kokapena, bularren tamaina, ahotsaren tinbrea, gorputzeko gantzaren banaketa). Eta beste ezaugarri batzuk testuinguru kulturalaren eta historikoaren araberrakoak dira (esate baterako, gonak eta oinetako takoidunak janzteak, ezpainak margotzea, ibiltzeko era, gustuak, jolasak eta baita indar muskularra, gorputzeko gantz kantitatea, bularren tamaina eta beste batzuk ere). Jaiotzetik bizi dugun gizarteratze prozesuak parte hartzen duenez, ezaugarri edo bereizgarri horiek gizarte agindu gisa transmititzen dira eta egiten ditugu geure: "izan behar duena". Eta berehala barneratzen ditugu, subjektiboki, eta beraz, gizonek baino emakume gehiagok, edo alderantziz, partekatzen dute ezaugarri hori kultura jakin batean.






Horrenbestez, gizarte eta kultura mailako espektatibetatik eta konbentzioetatik urruntzen diren jokaerak dira "generoko jokabide ez normatiboak". Esate baterako, zuhaitzetan gora egitea atsegin duen edo ileak mototsean bilduta eramatea atsegin ez duen neskatoa edo printzesa janzteia atsegin duen edo panpinekin jolastea atsegin duen mutikoa. Eta helduekin berdin gertatzen da. Gizarte bizitzak zigortu egiten ditu adierazpide horiek estereotipo batzuekin: "maritxu, mari-mutil, etab.". Nornahik izan ditzake halako jokaerak.

"Trans-" hitza edo aurrizkia erabiltzen da testu eta foro askotan. Hitz bilgarria da, gaur egun jaiotzean esleitutako sexuarekin bat ez datorren nortasun sexuala duten pertsonak (emakume eta gizon transexualak) eta gizartearen ikuspegitik espero zitekeenarekin bat ez datozen generoko jokaerak dituzten pertsonak (transgeneroa, trabestiak, queer-ak, drag queen-ak eta beren identitatea beren hitzekin deskribatzen dutenak, etab.) biltzen ditu. Beraz, bestelako identitate sexualak eta generoko adierazpideak adierazi ditzake trans hitzak.

Ez da erraza hitzek transexualitateak bizitako esperientziaz eta kontzeptuez esaten dutena -eta ezkututzen dutena- adieraztea, baina nahitaezkoa zen honakoa bezalako ekintza publikoko eta kolektiboko Gidaliburu batean. Sexu eta genero identitatearen adierazpideetan argi ikusten dugu handia dela aniztasuna, eta orain oso aberatsa dela ñabarduretan. Guztiak errespetatu behar dituzte eta guztiei arreta eman behar diete administrazio publikoko politikek.





## Giza eskubideak, eskubide sexualak, aniztasuna eta despatologizazioa

Transexualei aitortzen zaizkien eskubide sexualak eta ugaltzekoak ez dira aldatu azken hamarkadetan (NBE-HIES, Kairoko Konferentzia, 1994). Besteak beste, norbera onartua izatea eta ezagutua izatea dakartzate, gizon izan, emakume izan eta izaki sexuatua izan; osotasun fisiko, psikiko eta soziala izateko eskubidea; berdintasunerako eskubidea, sexu eta genero diskriminaziorik gabe; eta bizitzeko eskubidea, lehenago aipatutako eskubide guztiez gozatzeko aukera ematen duena. Eta soilik horregatik, desafioa da transexualitatea gizarte honentzat.

Alde batetik, transexualitateak halako desafio soziokulturala planteatzen du gizartearen posizioarekiko, askotariko pertsonak kokatzen baititu eztabaidaren eta politika publikoen erdigunean eta, beraz, geure kultura arauemaileak eragiten dituen zaurgarritasuna eta oinazea bihurtzen baititu eztabaidagai. Gonbit egiten du bestelakoak direnak biltzera eta dualtasunak gainditzera, biek ala biek zailtzen baitute pertsona ororen garapen harmoniatsua, baita haur, gazte eta pertsona heldu transexualen eta beren inguruarena ere.

Beste aldetik, transexualek, haurrak, gazteak, helduak edo adintsuak izan, bizi esperientzia guztiei balio handiagoa ematera eta mundu integratu bat eraikitzen bultzatzen gaituzte. Era berean, politika publikoak eta oro har gizartea transbertsalizatzeko gonbita da, ikuspegi inklusiboarekin, zuzentasuna eta pertsona ororen -transexualak barne- baliokidetasuna eta ekarpena aintzat hartuak izan daitezen pertsonen arteko harremanen osaeran eta harreman sozial, politiko eta ekonomikoetan.

**Giza eskubideen eta eskubide sexualen esparrukoa da transexualitatea**, eta hori ez da soilik aipatu eskubideen aplikaziotik ondorioztatzen; izan ere, **transfobia** sozialaren ondorioa da, zaurgarritasun eta zailtasun handiagoak eragiten baititu, esate baterako, diskriminazioa eta indarkeria.

Eguneroko egoera batzuk ditugu erakusgarri. Esate baterako, harridura edo arbuioa koordinaziorik gabekotzat interpretatzen dugunean gizona eta transexualaren kanpoko irudia; arropen erabilera sexu sentituaren arabera ikastetxeetan eta kiroldegietan; profesional batzuek eta beste pertsona batzuek izen sentitua erabiltzeko duten zailtasuna edo ukazioa; enplegu bat aurkitzea edo erosketak, bidaiak edo kirola bezalako jarduerak egitea, NAN irudiarekin eta izenarekin bat etor ez daitekeenean, etab. Esperientzia horiek modu positiboan integratzeko beharrezkoak izan litezke prozesu emozional konplexuak eta/edo laguntza sareak gizarte nabarmen

transfobikoak, patriarkalak, sexistak eta heterosexualak, sustrai judu-kristau sakonekoak, berezko duen egiturazko oinarria indargabetzeko.


Gizarte eta lege mailako gatazka bizipen hauek estu lotuta daude oraindik eztabaidagai diren hiru konturekin: a) adin nagusikoa izateko baldintza nahi diren aldaketa legalak eta kirurgikoak (eta zenbaitetan baita hormonalak ere) egiteko; b) hormonak tratatzen bi urte ematea sexuaren aipamena aldatu ahal izateko legezko dokumentuetan, eta c) kirurgia genitala ez egitea dagokion lurraldeko osasun publikoetako prestazioetan.

Ez dugu amaituko nazioarte mailatik, estatu mailatik, LGTBI taldeetatik, osasun eta zientzia esparruetatik eta herritarren aldetik **despatologizazioaren** alde egindako eskaera ugariak azpimarratu gabe. Kontsentsua oso zabala da, norberaren identitatea zein den norberak daki eta norberak sentitzen du, eta adierazten duenaren bidez baizik ez daiteke ezagutu, eta ez diagnostiko zientifiko-tekniko batek adierazten duenaren bidez.

Beraz, zentzuzkoa da neurri edo ekintza positiboak hartzera bultzatzen duten gidalerro eta aholku espezifikoak izatea gatazka egoera hau indargabetzeko, transexualitateari dagokionez ahalduntze kolektiboa eta soziopolitiko ahalbidetzeko bizitza publikoaren eta pribatuaren esparru guztietan, nola norberaren bizitzan hala norberaren gorputzean. Une egokia iritsi dela ematen du. Orain arte egindako aurrerapausoak, eskuarki gizarte mailan ikusgarritasun handiagoa ematekoak, herritarren eta familien babesa, eta herritarrek giza eskubideen eta eskubide sexualen aurrean duten kontzientziazio handiagoa kontuan harturik, funtsezkoa da kolektibo horri gizarte mailan laguntzeko ildo horretan lan egiten jarraitzea, kolektibo txikia izan arren herritarren zatia baita eta, beraz, arreta jasotzeko eskubidea baitu.









## Gidaliburuaren xedea eta helburuak

Norbaiti zerbait argitzeko balio duen argibide sorta dira gidaliburu guztiak. Honakoa **transexualentzako edo transexualitate egoeran daudenentzako gidaliburua da**, eta berenganako arreta hobetzeko eskuragarri dauden tresna publiko edo sozialen berri ematen du. Jarraian aipatuko ditugu Nafarroan pertsona horienganako arreta hobetzeko dauzkagun erakundeak eta jarduera profesionaleko zerbitzuak, baita sentsibilizatzeko eta hezteko neurriak eta beste baliabide instituzional eta informal batzuk ere (baliabide kliniko-mediku hertsia izan ezik).

Transexualek eta beren ingurukoek egiten duten bizi ibilbideetarako **baliabide eta zerbitzuen gidaliburua** da, betiere sortzen diren beharriaren edo eskatzen duten informazioaren arabera, beren sentitzeko, bizitzeko eta adierazteko era bereziaren arabera, beren erritmoaren arabera, norberak bizi duen prozesuaren arabera.

Honenbestez, Gidaliburu honek eskura dauden zerbitzu publikoen eta elkarten berri ematen du, betiere kontuan izanik **pertsona bakoitza bere bizaldiaren ibilbidean**. Herritar ororentzako zerbitzuen berri ematen du, baina baita bereziki transexualentzakoak diren ere. Era berean, pertsonengan oinarritutako laguntza koordinatua eta diziplina artekoa ahalbidetu daitekeela agerian uzteko asmoz landu da gidaliburu hau.






## Erakundeen eta elkarten baliabideak eta zerbitzuak

Jarraian balizko ibilbide biografiko ahalik eta luzeena aurkezten dugu; adin tarte desberdinen bitartez, behar litezkeen baliabideen berri ematen du. Baliabide horiek hiru irizpideren arabera antolatu dira: adina (ibilbide biografikoa); erakundearen edo elkartearen zerbitzuen izaera, eta baliabide horien izaera orokorra (esate baterako hezkuntza) edo espezifikoak (Kattalingune eta Harrotu).

Nagusiki hiru kontu jasotzen dira gidaliburu honetan:

- Arreta eman diezaguketuen instituzioak eta erakundeak:
  - Familia eta adingabeen zuzendariordeak
  - Hezkuntza Departamentua
  - Osasun Departamentua
  - Gizarte Zerbitzuak
  - Enplegua
  - Gazteria
  - Nafarroako Berdintasunerako Institutua (NABI)
  - Kattalingune. Nafarroako Gobernuaren LGTBI Informazio eta Arretarako Zerbitzu Publikoa
  - Harrotu, LGTBI gunea. Iruñeko Udaleko sexu eta genero aniztasun Arretarako udal zerbitzua.
  - Transexualen edo familien elkarteak:
    - Chrysallis Euskal Herria
    - Transkolore
- Guri arreta emateko oinarritzen diren printzipioak: beren egitekoaren erantzukizun publikoa, arreta unibertsala (pertsonek ororentzat), berdintasuna aukeretan eta tratamenduan, beharrezan eta egoera ororen aurreko arreta pertsonalizatua eta osoa, autonomiaren sustapena, administrazioen (hezkuntza, osasuna, etab.) eta erakunde sozialen eta transexualitate egoeran dauden pertsonekin lan egiten dutenen arteko koordinazioa eta lankidetzak.
- Eta Nafarroan transexualek, beren familiek eta gertukoek arreta eta laguntza jasotzeko dauden zerbitzu eta baliabide espezifikoak.





## Familia esparrua

Gure prozesuan zehar, informazioa bilatzeko edo dauden zerbitzuak eta baliabideak ezagutzeko premia izan dezakegu, baita geure familiei laguntzeko ere.

### NORA JO?

Familia eta Adingabeen Zuzendariordetzak lagun diezaguke. Informazioa bilatzeko:



[http://www.navarra.es/home\\_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Presidencia+justicia+e+interior/Organigrama/Estructura+Organica/?idunidadactual=10005188](http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Presidencia+justicia+e+interior/Organigrama/Estructura+Organica/?idunidadactual=10005188)



Familia sekzioa. Abejeras kalea, 1 (Iruñea)



8:30etatik 14:30ak arte (Al-Or)



848.421258



Familia eta Adingabeen Zuzendariordetza. Abejeras kalea, 5 bis, 7 eta 9 (Iruñea)



848.421210



sefamili@navarra.es

Prozesu honetan norbaitek gidatzerik eta/edo laguntzerik behar badugu, aldeztu aurretik hitzordua eska dezakegu zerbitzuko profesional batekin.

Behar dugunaren arabera, hauxe gerta liteke:



Geure kontsultei edo egoerei Familia eta Adingabeen Zuzendariordetzan erantzutea:



Adibidea: Familia ugarietzako laguntza eskaera; bitartekaritza senar-emazteak banatzean; eta bitartekaritza seme-alabak adopzioan hartzean edo aldi baterako hartzean.



Egokiago iritzitako zerbitzu espezifiko batera bideratzea: transexualitate egoeran dauden pertsonekin lan egiten duten institutu edo erakundeetara, esate baterako, Kattalingunera (Nafarroako LGTBI Informazio eta Arretarako Zerbitzu Publikoa) edo Chrysallis Euskal Herria elkartera (Adingabe transexualen familien elkartera), edo beste elkarte batera.

## ZERTARAKO JOAN? GEURE BEHARRIZANEI ERANTZUTEN DIETEN ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK

Familia esparruan ezagutzea merezi duten hainbat zerbitzu eta baliabide daude, oso lagungarriak izan baitaitezke une honetan edo agian etorkizunean.



ZERBITZUAK	HARTZAILEAK	EKINTZAK
<b>HAUR ESKOLAK</b>	0 eta 3 urte bitarteko adingabeak dauzkaten pertsonak	0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako heziketa zerbitzuak. Transexualitateari dagokionez, zailtasun egoerak hauteman ditzakete haurren eta gurasoen prozesuan zehar.
<b>FAMILIA ORIENTABIDEA ZERBITZUA</b>	Gizarte zaugarritasun egoeran dauden familiak	Familiaren inguruan eta transexualitatearekin loturik sor litezkeen arazoak eta desafioak aztertzen ditu.
<b>ADINGABEEN ARRETARAKO ZERBITZUA</b>	Gizarte zaugarritasun egoeran dauden adingabeak	Babesgabetasun egoeran dauden adingabeak hartzen ditu.

Haur eskolak izan ezik, doakoak dira Familia eta Adingabeen Zuzendariordeak eskaintzen dituen zerbitzuak.


### NORTZUK DITUGU LAGUN PROZESU HONETAN ETA NOLA LAN EGITEN DUTE?





Familia eta Adingabeen Zuzendariordeetan lan egiten dutenak ditugu lagun, ongi asko dakite pertsonok begirunez eta berdin-berdin tratatuak izateko eskubidea dugula, geure arraza, erlijioa eta egoera pertsonal zein soziala edozein delarik ere. Horretarako, arreta berezia jartzen dute geure harremanetan familia esparruan, ikastetxean, eta abarretan, eta lagundu egiten digute harreman horiek ongizatea ez dakarkigutenean.

Baliabideetara jotzen dugunean, nola hartuko gaituzte? galdetzen diogu geure buruari. Hauexek dira familia eta adingabeen Zuzendariordeetan oinarritzen diren printzipioak: begirunea, berdintasuna, onarpena, entzutea, aurreiritzirik gabeko jarrera, normalizazioa, enpatia eta konfidentzialtasuna. Hortaz, arreta emango digute eta arreta eskatu ahal izango dugu:



Komunikazioan eta aurrez aurreko arreta ematean adierazten dugun identitatearen arabera, nahiz eta espediente formalean geure NANan edo geure jaiotza agirian adierazitako identitatea jasotzen den.



-  Zerbitzu honetan ez dago arreta emango digun profesionala aukeratzetik, baina bermatuta dago arreta ematen duen pertsonak errespetatu egingo dituela onarpena, aurreiritzirik gabeko jarrera eta beste printzipio guztiak.
-  Profesionalek informazioa dute eta zein erakunde edo elkartetara jo erabakitzen lagundu diezagukete. Batez ere transexualitate egoeran dauden pertsonekin eta beren familiarekin lan egiten dutenetara, esate baterako, Kattalingunera, Chrysallis Euskal Herriara, Transkolorera.
-  Gainera, babesgabetasun egoeran dauden adingabeak zerbitzu honetan hartuak eta balioetsiak izan direnean, eska ditzakegun gizarte, hezkuntza eta etxebizitza alorreko baliaabideak dauzkate.
-  Adingabeei eta beren familiei Familia eta Adingabeen Zuzendariordetzara laguntzeko, beste administrazio publiko batzuekin (gizarte zerbitzuak, osasun zerbitzua, hezkuntza, etab.), familia elkarteekin eta hurrei arreta emateko elkarteekin eta Kattalingune eta Chrysallis Euskal Herria bezalako familien edo transexualen erakunde espezifikoekin koordinatzen da.

## IRADOKIZUN, ESKAERA EDO ESKARIREN BAT BADUGU...

Hauetara jo dezakegu:



Familia eta Adingabeen Zuzendariordetza



[sefamili@navarra.es](mailto:sefamili@navarra.es)



Abejeras kalea 5 bis, 7 eta 9 (Iruñea)



Eskubide Sozialetako Departamentua



[info.derechossociales@navarra.es](mailto:info.derechossociales@navarra.es)




González Tablas kalea 7, behe oina (Iruñea)




8:00etatik 14:30ak arte (Al-Or) Bertaratuta eta 8:00etatik 15:00ak arte (Al-Or)



848.426900







## Hezkuntza esparrua

Zenbaitetan ikastetxean eskatu behar izaten dugu informazioa edo laguntza adingabe transexual gisa esparru horretan gerta litezkeen desafio edo kontuen aurrean zer egin dezakegun jakiteko edo geure seme-alabari bere prozesuan laguntzeko.

Aurrerago ikusiko dugunez, hezkuntza esparruan funtsezko zerbitzuak eta tresnak daude, orokorrak eta espezifikoak, esate baterako, heziketa alorreko protokoloa transexualitate kasuetan.

### NORA JO?

Behar dugunean, hauetara jo dezakegu:



<https://www.educacion.navarra.es/web/dpto/educacion-en-valores/asesoria-para-la-convivencia>



Hezkuntza Departamentuko Berdintasunaren eta Bizikidetzaren sekzioa



Santo Domingo kalea z/g (Iruñea)



8:30etatik 14:30ak arte (Al-Or)



848.424777 edo erantzungailua 900.841551



convive@navarra.es

Eskaerei 24 ordu igaro baino lehen erantzun ohi zaie.



Era berean, geure Zentroko zerbitzuetara eta profesionalengana jo dezakegu: orientabidea, zuzendaritza taldea eta irakasleak.

Behar dugunaren eta eskatzen dugunaren arabera, hauxe gerta liteke:



Arreta ikastetxeak berak edo hezkuntza departamentuak ematea:



Adibidea: Haur transexual bat identifikatzea eta horren berri ematea.




Edo transexualitate egoeran dauden adingabeak dauzkaten beste familiekin harremanetan jar gaitzakeen Chrysallis Euskal Herria bezalako zerbitzu espezifiko batera bideratzea, edo Kattalingunera edo Harrotura bideratzea, aholkuak eta material ugari eskain baitiezazkigukete geure prozesuan edo geure seme-alaben prozesuan lagungarri izateko.



Zenbaitetan, zailtasun bereziko egoeretara eraman gaitzake transfobiak, halakoetan laguntza handiagoa behar izaten dugu. Hala denean, eskola eta familia testuinguruaren ebaluazio psikopedagogiko bat egiten da, eta horri esker, profesionalak informazio gehiago biltzen dute guri hobe lagundu ahal izateko.





## ZERTARAKO JOAN? GEURE BEHARRIZANEI ERANTZUTEN DIETEN ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK

Erakunde publiko guztietatik hezkuntza sistema da baliabide unibertsalena; horrexek bermatzen du haur guztiek helburu eta eduki antzekoak dituen heziketa bat jasotzea. Hezkuntza sistema oinarritzen den printzipioetako batzuk dira giza eskubideak eta aniztasunarekiko begirunea, eta heziketa afektiboa eta sexuala lehen mailako edukia da garapenean, guztietan lagungarriena. Aldi berean, transexualentzako heziketa protokoloa da lagunduko digun funtsezko tresna.

ZERBITZUAK	HARTZAI-LEAK	EKINTZAK
<b>HEZIKETA PROTOKOLOA TRANSEXUALITATE KASUEN AURREAN</b>	Hezkuntza komunitate osoa	<p>Transexualitate egoera identifikatu eta horren berri ematen du, antolakuntza neurriak hartzen ditu ikastetxean (esate baterako, izena, irudi fisikoa eta arropa, sexuen araberako jarduerak, instalazio berezituak, komunak eta aldagelak, besteak beste), hezkuntza komunitate osoarentzako (irakasleak, bestelako langileak, gurasoak, ikasleak) prestakuntza plan integrala lantzen du, eta neurriak hartzen ditu diskriminazio eta eskola jazarpen kasuen aurrean.</p> <p>Honako esteka honetan aurkituko dugu osorik:  <a href="https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/27720/ProtocoloTrans+CAST+Def+web.pdf/1c7bb04e-583f-4fde-91ea-15e49c7ad795">https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/27720/ProtocoloTrans+CAST+Def+web.pdf/1c7bb04e-583f-4fde-91ea-15e49c7ad795</a></p>
<b>HEZKIDETZA-HEZKUNTZA AFEKTIBO ETA SEXUALAREN PLANA</b>	Hezkuntza komunitate osoa	<p>Sexualitatearen funtsezko edukiak aztertzen ditu ikuspegi ulerkor batetik;</p> <p>Aniztasun sexuala integratu eta ulertu egin du adierazpideen aberastasuna; indarkeriarik gabeko harreman afektiboak eta sexualak izateko hezten du, eta hezkide da emozioen alorrean.</p> <p>Informazio gehiago izateko:            Coeducación Maletas lectoras <a href="http://coeducando.educacion.navarra.es/maletas-lectoras/">http:// coeducando.educacion.navarra.es/maletas-lectoras/</a></p>
<b>LAGUNTZA PROGRAMA</b>	Hezkuntza komunitate osoa	<p>Aurrea hartu eta esku hartzen du eskola jazarpen kasuetan. Transfobia soziala ikusirik, aurrea hartzea, diagnostikoa egitea eta jazarpen eta ziberjazarpen egoerak murriztea edo desagerraraztea ahalbidetzen du. Irakasleak prestatzen ditu, programa txertatzeko aholkuak ematen ditu eta aurrea hartzeko eta esku hartzeko metodologia eskaintzen du. Jarduteko protokolo bat proposatzen du jazarpen susmoen aurrean.</p> <p>Informazio gehiago izateko:  <a href="https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/27720/Laguntza.pdf/882ed39b-e37a-44a9-b90f-5c98ea2f05c5">https://www.educacion.navarra.es/documents/27590/27720/Laguntza.pdf/882ed39b-e37a-44a9-b90f-5c98ea2f05c5</a></p>

Oso erabilgarriak izan daitezke eta behar diren kontsulta guztiak egiteko eskuragarri daude ikastetxeetako irudi batzuk: zuzendaritza, ikasgelako irakasle tutorea, orientabide zerbitzua eta gurasoen elkarteak, besteak beste. Eskola kontseiluan ere gurasoen eta irakasleen ordezkariak dago.

Doakoak dira Hezkuntza Departamentuak eskaintzen dituen zerbitzuak.


## NORTZUK DITUGU LAGUN PROZESU HONETAN ETA NOLA LAN EGITEN DUTE?

Hezkuntza esparruko profesionalak arreta globala ematen diote pertsonari, betiere desberdintasunak onartuz eta errespetatuz, etika profesionala zainduz eta erakundeen arteko lankidetzak planteamenduetatik abiatuz.

Gainera, aldaketa prozesuetan edo, halakorik baldin badago, jazarpen kasuetan laguntzen diguten pertsonak dira aholkuak ematen dizkigutenak, adituak dira hezkidetzan, bizikidetzan eta sexologian. Hortaz, arreta emango digute eta arreta eskatu ahal izango dugu:

- ☺ Komunikazioan eta ikastetxeko ohiko dokumentazioan gure edo geure semearen edo alabaren izen sentituaren arabera. Baina, erregistro zibilean aldaketa gauzatzen ez den arte, NANren edo jaiotza agiriaren araberako izena uztea agintzen du arauak.
- ☺ Ikastetxeetako profesionalak prestatuta daude eta ongi ezagutzen dute transexualitate kasuen aurreko heziketa protokoloa, eta aplikatu egin behar dute. Gainera, gure ikastetxean egongo dira gure galderei erantzuteko moduko pertsonak, transexualitateari eta heziketa afektibo eta sexualari buruzko prestakuntza ikastaroak egin baitituzte.
- ☺ Era berean, Hezkuntza Departamentuaren bitartez, protokoloa aplikatzeko prestakuntza jaso dezakegu. Eta prozesu horretan ikastetxearen laguntza behar baldin badugu, bizikidetzak eta berdintasun Aholkularitzara jo dezakegu, ikastetxeko zuzendaritzara edo bizikidetzak batzordera, gizarte zerbitzuetara eta/edo transexualitate egoeran dauden adingabeen familien elkarteetara (esate baterako, Chrysallis Euskal Herria elkartera).
- ☺ Gure edo geure semearen edo alabaren transexualitate egoeraren harira arazoak baldin baditugu beste pertsonekin, laguntza eska diezaikegu seme-alabaren tutoreari, edo geure ikastetxeko bizikidetzak batzordeari edo Hezkuntza





Departamentuari. Azken horretara jotzen badugu, transexualitate kasuen aurreko heziketa protokoloan dagoen aholkularitza eta laguntza eskaera bete beharko dugu. Departamentuak, egoki iritziz gero, sexologo espezializatu bati eskatuko dio geure ikastetxearekin harremanetan jar dadila egin behar dituen urratsak egin ditzan.



Gainera, haurrak baldin badira, beren prozesuan, familiarenean eta ingurunean sor litezkeen zailtasunei aurre egin dakieke; eta beste zerbitzu batzuekin koordinaturik (kontsultak Familia eta Adingabeen Zuzendariordetzan edo Gizarte Zerbitzuetan babesgabetasun egoeran dauden adingabeak baldin badira eta euren etxeetan beren egoera onartzen ez baldin badute; Osasun Departamentuan eskola jazarpena jasan dutenei arreta psikologikoa emateko; eta Chrysallis Euskal Herria elkartean seme-alaba transexualak dauzkaten beste gurasoekin zalantzak argitzeko).

### IRADOKIZUN, ESKAERA EDO ESKARIREN BAT BADUGU...

Harremanetan jar gaitzke bizikidetza aholkularitzarekin:




[convive@navarra.es](mailto:convive@navarra.es)



Santo Domingo kalea z/g, Iruñea





## Osasun esparrua

Nola helduok hala adingabeek eta beren familiek agian geure gorputzari eta osasunari buruzko informazioa edo aholkularitza behar izaten dugu. Ikusiko dugunez, osasunaren esparruan ere badira funtsezko zerbitzu batzuk, orokorrak eta espezifikoak, esate baterako TRANSBIDE.

### NORA JO?

Nola Lehen mailako Arreta emateko Zentroak hala Sexu eta Ugalketa Osasun Zentroak (CASSYR), eta TRANSBIDE unitatea dira gure osasunari buruzko aholkuak jasotzeko harrera lekuak. Informazioa bilatzen badugu, hauetan aurkituko dugu:

1) Gure osasun orokorrari dagokionez, lehen mailako arreta zentroetan (pediatria barne)



[https://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Portal+de+la+Salud/Profesionales/Informacion+tecnica/Sanidad/zonificacion+sanitaria+navarra.htm](https://www.navarra.es/home_es/Temas/Portal+de+la+Salud/Profesionales/Informacion+tecnica/Sanidad/zonificacion+sanitaria+navarra.htm)



Udalerrri edo auzo bakoitzari osasun zentro edo kontsultategi bat dagokio: Gurea hermen kontsultatu dezakegu:

[http://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Portal+de+la+Salud/Profesionales/Recursos/Centros+de+Salud.htm](http://www.navarra.es/home_es/Temas/Portal+de+la+Salud/Profesionales/Recursos/Centros+de+Salud.htm)

2) Geure sexu osasunari arreta ematea bila badugu:



Sexu eta ugalketa osasun arretarako zentroak (CASSYR). Osasunbidea, Nafarroako Osasun Zerbitzua.

[http://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Portal+de+la+Salud/Profesionales/Recursos/CASSYR.htm](http://www.navarra.es/home_es/Temas/Portal+de+la+Salud/Profesionales/Recursos/CASSYR.htm)

Iruñean



BUZTINTXURIKO CASSYR, ZABALGUNE-ALDE ZAHARREKO CASSYR, ERMITAGAÑAKO CASSYR, ITURRAMA-SAN JUANGO CASSYR, ARROSADIA-AZPILAGAÑAKO CASSYR, ETA TXANTREAKO ANDRAIZE CASSYR.



Nafarroako gainerakoan:



BARAÑAINGO CASSYR, BURLATAKO CASSYR, ELIZONDOKO HAIZEA CASSYR, LIZARRAKO CASSYR, ETXARRI-ARANAZKO IZARGI CASSYR, SARRIGURENGO CASSYR, TAFALLAKO CASSYR ETA TUTERAKO SANTA ANA CASSYR.

3) Transexualentzako, transgeneroentzako edo intersexualentzako arreta eta laguntza espezifikoak bilatzen badugu, TRANSBIDE Unitatea dugu:



TRANSBIDE, Txantreako Andraize sexu eta ugalketa osasun arretarako Zentroa.



San Kristobal kalea, z/g. Munduko Parkea. Txantrea. Iruñea.



8:30-20:30 neguko ordutegia  
8:30-14:30 udako ordutegia



ANDRAIZE 848 422761



TRANSBIDE@navarra.es

4) eta agian kontu honi buruzko araudi juridikoa kontsultatu nahi dugu:



- Azaroaren 16ko 103/2016 Foru dekretua, sexu eta ugalketa osasun alorreko osasun prestazioak antolatzen dituena.

- Ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzkoa.

- Urtarrilaren 15eko 16E/2018 Foru Agindua, Osasuneko Kontseilariak emana, zeinaren bidez antolatzen baita pertsona transexualen, transgeneroen eta intersexualen osasun arreta.

Aldez aurretik hitzordua eskatuta antolatzen dira zerbitzu hauek.

Behar dugunaren arabera, hauxe gerta liteke:



Informazioa eta/edo arreta zuzenean ematea.




Beste baliabide espezifiko edo espezializatu batzuetara bideratzea, betiere geure beharrezanaren arabera.



Adibidea: berdinen arteko laguntza Kattalingunen edo Harrotun, edo Chrysalis Euskal Herria elkarteetan; aholkularitza osasun alorreko kontu orokorretan, lehen mailako arreta zentroetan; arreta espezifikoak TRANSBIDE Unitatean; arreta ospitalean, Nafarroako Ospitale Gunean, etab.






## ZERTARAKO JOAN? GEURE BEHARRIZANEI ERANTZUTEN DIETEN ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK

Zerbitzu eta prestazioetan sarrera izateko, norberak eskatu behar du lehen kontsulta bat Sexu eta Ugalketa Osasun Arretarako Zentroetan (CASSYR), edo Lehen mailako Arreta Zentroetan. Larrialdia bada, arreta ematen digunak ere balioetsiko du.

ZERBITZUAK	HARTZAILEAK	EKINTZAK
<b>LEHEN MAILAKO ARRETARAKO ZENTROAK</b>	Herritarrak oro har Adin guztietakoak	<p>Lehen mailako arreta da arretaren oinarrizko eta hasierako maila, arreta horrexek bermatzen ditu arretaren globaltasuna eta jarraitutasuna bizitza osoan zehar. Osasun ona bultzatzeko jarduerak, heziketa sanitarioa, gaixotasunaren prebentzioa, asistentzia sanitarioa, osasuna mantentzea eta berreskuratzea eta birgaitze fisikoa eta lan soziala hartzen ditu bere baitan.</p> <p>Pertsonei, familiei eta komunitateari ikuspegi biopsikosozial batetik zuzendutako jarduera hauek guztiak diziplina arteko taldeek eskaintzen dituzte, bermatu egiten dituzte jarduera guztien kalitatea eta irisgarritasuna, osasun zerbitzuak ematean arreta esparru desberdinen arteko jarraipena eta esku hartzen duten sektore guztien arteko koordinazioa.</p> <p>Lehen mailako arreta, osasun arazoei erantzutea eta alderdi eta jokaera arriskugarriari heltzea barne.</p>



ZERBITZUAK	HARTZAILEAK	EKINTZAK
<b>SEXU ETA UGALKETA OSASUN ARRETARAKO ZENTROAK (CASSYR)</b>	Herritarrak oro har	<p>Herritar ororen sexu eta ugalketa osasuna sustatzen dute.</p> <p>Sexualitate programa espezifikoak lantzen dituzte gazteentzat.</p> <p>Informazioa eta orientabidea eskaintzen dituzte transexualitatearen inguruan.</p> <p>Aniztasun sexualaren aitortza eta onarpena sustatzen dute hezkuntza sisteman.</p> <p>Era berean, eskola komunitateari – irakasleak, guraso elkarteak–, pertsona helduen kolektiboei, gizarte eta kultura jardueretarako zentroei, gazte elkarteei eta beste batzuei zuzendutako heziketa sexual ikastaroak eta tailerrak egiten laguntzen dute.</p>
<b>NAFARROAKO OSPITALE GUNEA</b>	Gizarte zaugarritasun egoeran dauden adingabeak	<p>Batzuetan, ospitaleetako kontsultetara bideratzen gaituzte proba batzuk egitera, kirurgia egitera edo premiazko kontsultak egitera.</p> <p>Beharrezkoa bada, azterketa genetikoa egin eta arreta ginekologikoa eskaintzen dute, baita arreta andrologikoa ere, eta otorrinoaren, logopedaren, kirurgia plastikoaren eta kirurgia orokorraren zerbitzuak ere bai, buruko osasun zerbitzuez eta beste batzuez gain.</p>



## TRANSBIDE

TRANSBIDE da erreferentziako unitate espezializatua transexualitate, transgenero eta intersexualitate kontuetan.

Sexu eta Ugalketa Osasun Arretarako Zentroetako (CASSYR) batean dago, zehazki Txantrea-Andraizekoan, eta Nafarroako Ospitale Gunearen mendekoa da.

ZERBITZUAK	HARTZAILEAK	EKINTZAK
TRANSBIDE	Transexualak, transgeneroak, intersexualak eta gertuko pertsonak.  Adin guztietakoak	<p>Harrera egiten digute, geure beharrezanez buruz galdetzen digute, eta babesten, bideratzen eta laguntzen gaituzte.</p> <p>Gure adierazpenaren bidez eta geure gorputzarekiko autodeterminazioaren bidez balioesten dute geure izaera.</p> <p>Tratamenduen onurak eta arriskuak neurtzeko beharrezkoak diren esplorazioak eta proba osagarriak egiten dituzte edo haien berri ematen dute.</p> <p>Giza ugalketa lagunduari buruzko informazioa eta aholkuak ematen dituzte berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren erregimenean.</p> <p>Tratamendu medikuak eta kirurgikoak agintzen dituzte (zerbitzuen eskaintzan daude) eta informazioa ematen dute, halako jarduerak pertsona bakoitzarengan izan ditzaketen onurak eta arriskuak medikuaren eta pazientearen artean balioetsi eta gero.</p> <p>Ospitaleetako unitateetara edo oso unitate espezializatuetara, beraien etara edo kontzertatuetara, bideratzen dituzte.</p> <p>Babes emozionala eta laguntza eskaintzen dizkiete prozesuan zehar pertsonari eta/edo eskatzen duten familiei.</p> <p>Dokumentazio administratiboetan egin beharreko aldaketak sustatzen dituzte, baita osasun txartelean eta formulario medikuetan ere, sentitzen dugun bezala izendatuak eta tratatuak izan gaitzen.</p>

## NORTZUK DITUGU LAGUN PROZESU HONETAN ETA NOLA LAN EGITEN DUTE?

Osasunaren esparruko profesionalek oso modu pertsonalean eta hurbilean emango digute arreta, era globalean eta integralean, eta aintzat hartuko dituzte geure zirkunstantziak eta testuinguruak.


Entzute aktiboan eta afektiboan oinarritzen da geure osasunarenganako arreta eredu, begirunean, elkarrizketan, konfidentzialtasunean eta batez ere sexu edo genero identitatearen autodeterminazio askean; beraz, ezin tratatu daiteke geure errealitatea patologia bat balitz bezala, ez zuzenean ez zeharka. Hortaz, arreta emango digute eta arreta eskatu ahal izango dugu geure identitatearekin bat etorrira.

Heziketa sexualean, psikologia klinikoan, sexologian, endokrinologian eta pediatrian adituak diren profesionalek osatzen dute TRANSBIDE. Lehen ere azaldu dugunez, Nafarroako Ospitale Gunean ere badira erreferentziazko profesional espezialistak.

Nola hartzen gaituzte TRANSBIDEn?

- ☺ Adierazten dugun identitatearen arabera.
- ☺ Arreta ematen digutenak sexologian eta transexualitatean daude prestatuta, eta guri entzun eta informazioa eta aholkuak eman diezazkigukete.
- ☺ Geure identitatearen adierazpena aintzat hartuta, trans baldintza egiaztatzeko eta harrera egiteko elkarrizketa egingo digute.
- ☺ Arreta emateko prozesuari, aukera terapeutikoei, geure sexualitatearekin zerikusia duten kontuei eta unitatean eskaintzen diren laguntza zerbitzuei buruzko informazioa emango digute.
- ☺ Profesionalekin batera balioetsiko ditugu prozesu orean onurak eta arriskuak.
- ☺ Generoa aldatzeko geure prozesuan edo trantsizio sozial horretan arreta integrala eta diziplina artekoa bermatzeko, Trans adingabeen kasuak aztertzeko Kudeaketa Batzorde bat dago. Era berean, prestakuntza jarduerak antolatzen dira irakasleentzat, eta kasu bakoitzaren aurrean aplikatu beharreko protokoloak eta jarraibide partekatuak zehazten dira.
- ☺ Beste Departamentuekin (Hezkuntza, Gizarte Zerbitzuak, Gazteria, etab.), zerbitzu publikoekin (Kattalingune, Harrotu) eta erakundeekin (Kattalingorri, Transkolore, etab.) batera koordinatuta jarduten da.





## IRADOKIZUN, ESKAERA EDO ESKARIREN BAT BADUGU...

Hauetara jo dezakegu:



Pazienteari osasun arreta emateko Zuzendaritza



Armada Etorbidea, 2. zk.. 31002 Iruñea



848.428827



Arreta pazienteari. Arreta pazienteari



Irunlarrea kalea 3. zk. 31008 Iruñea




848.422033



atencion.paciente.hospnavarra@cfnavarra.es





## Gizarte Zerbitzuak

Uneren batean informazioa bilatzeko eta eskura izan dezakegun aholkularitza eta gizarte laguntza sarea ezagutzeko premia izan dezakegu.

### NORA JO?

Gizarte Zerbitzuak dira harrera lekuak, informazioa emateaz gain laguntza eskaintzen baitute bizi prozesuetan.

Informazioa gizarte arloan bilatzen badugu, hemen aurkituko dugu:



[http://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Asuntos+sociales/](http://www.navarra.es/home_es/Temas/Asuntos+sociales/)



Auzoko Unitateetan (Iruñean) edo Nafarroako udalerrri edo mankomunitate bakoitzean badauden oinarrizko Gizarte zerbitzuetan. Gurea hauetan kontsultatu dezakegu:



[https://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Asuntos+sociales/Servicios+sociales+de+base/Buscador/](https://www.navarra.es/home_es/Temas/Asuntos+sociales/Servicios+sociales+de+base/Buscador/)



Baita herritarrei arreta emateko Zerbitzuetan ere



González Tablas kalea, 7 behea (Iruñea)



8:00etatik 14:30ak arte (Al-Or) Bertaratuta eta 8:00etatik 15:00ak arte (Al-Or)



848.426900



[info.derechossociales@navarra.es](mailto:info.derechossociales@navarra.es)

Gure prozesu honetan norbaitek gidatzerik eta/edo laguntzerik behar badugu, alde zurririk hitzordua eska dezakegu geure erreferentziazko pertsona izango den profesional batekin. Larrialdia bada, arreta ematen digunak ere balioetsiko du.

Behar dugunaren arabera, hauxe gerta liteke:



Geure egoerari edo zailtasunei Gizarte Zerbitzuetan bertan erantzutea:



Adibidea: Gizarte Zerbitzuen arloan: prestazio ekonomiko bat eskatzeko geure sarrerak bermatzeko, edo bere kabuz ezin baliatu daitekeen pertsona adintsu batentzako Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua eskatzeko.



Egokiago irizten den zerbitzu espezifiko batera bideratzea: transexualekin lan egiten duten instituzio eta erakunde jakin batzuetara (Kattalingune edo Harrotu), edo sexu eta ugalketa osasun arretarako zentroetara (CASSYR); edo beste elkarte batzuetara (Chrysallis Euskal Herria, Transkolore, etab.).




Zenbaitetan, pertsona bati edo familia bati eragin diezaiolke transfobiak, zaurgarritasuna emendatu dezake eta zailtasun sozialeko egoerak pilatzea dakar horrek, gaur egun interseksionalitate gisa ezagutzen dena sorraraziz.



Adibidea: Arazoak familian + eskola jazarpena + amak eta/edo aitak langabezian + etxebizitzarik gabe edo geletan bizitzen + gaixotasunak, etab. Egoera horretan lagundu eta babestu gaitzakete Gizarte Zerbitzuetan ondorioak arintzeko.








## ZERTARAKO JOAN? GEURE BEHARRIZANEI ERANTZUTEN DIETEN ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK


Hauexek ditugu gizarte arloan guretzat eta gure familiarentzat eta gertukoentzat une honetan edo agian etorkizunean baliagarriak izan daitezkeen zerbitzuak eta baliabideak, horrexegatik da interesgarria horien berri izatea:

PROGRAMA	HARTZAILLEAK	EKINTZAK
<b>HARRERA ETA ORIENTABIDE SOZIALA</b>	Pertsona guztiak	Harrera egiten digute, geure beharizaneiei buruz galdetzen digute, eta babesten, bideratzen eta laguntzen gaituzte.
<b>NORBERAREN AUTONOMIAREN SUSTAPENA ETA ARRETA MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI</b>	Mendekotasuna duten pertsonak: adingabeak, helduak eta/edo aniztasun funtzionala dutenak	Mendekotasun egoeran baldin bagaude, ahaleginak egiten ditu geure etxean, geure auzoan eta geure sarearekin (familia, ikaskideak, lagunak, lankideak, komunitatea, etab.) ahalik eta luzaroen jarraitzeko.
<b>GIZARTERATZEA</b>	Zaugarritasun, arrisku edo gizartean bazter geratzeko arrisku egoeran daudenak	Gizarteratzea ahalbidetzen du zailtasun egoerak (familia sarerik ez izatea+eskola porrota+enplegurik eza+etxebizitzarik eza+gaixotasunak+kontsumoak+irregularitasun administratiboa, etab.) pilotzen direnean.
<b>ARRETA HAURREI ETA FAMILIEI</b>	Haurrak eta gazteak	Haurrak eta gazteak maila guztietan (maila pertsonalean, familiarrean, heziketan) garatzea ahalbidetzen duen ingurune batean bizitzea ziurtatzen du.
<b>UDALETAN ERE BADIRA BESTE PROGRAMA BATZUK, ESATERAKO:</b>		
<b>BABESTUTAKO GIZARTE ENPLEGUA</b>	Langabezia dauden eta/edo lana lortzeko zailtasuna duten pertsonak	Komunitatean lan egiteko aldi baterako kontratazioen bitartez, gizartean bazter geratzeko arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea sustatzen du.
<b>UDALEN PROGRAMAK EDO EKINTZAK</b>	Nafarroan bizi direnak	Ongizaterako funtsezkoak diren beste ekintza batzuk eramaten ditu burura, esate baterako, berdintasuna, aisia eta denbora librea, arreta juridikoa emakumeei, etab.

Gizarte Zerbitzuek eskaintzen dituzten zerbitzu gehienak doakoak dira baldintzak betetzen dituzten pertsona guztientzat, baina badira salbuespen batzuk. Esate baterako, adintsuentzako egoitza Gobernuaren eta eskaera egiten duenaren edo bere familiaren edo gertukoaren artean ordaindu behar da, betiere egoera sozioekonomikoaren arabera (koordainketa).

Jarraian aurkezten ditugun arlo hauetakoren batean zailtasunen bat bagenu, arreta espezifikoa jasotzeko aukera genuke:









## NORTZUK DITUGU LAGUN PROZESU HONETAN ETA NOLA LAN EGITEN DUTE?



Geure ongizatea ahalbidetzeko, modu pertsonalean emango digute arreta Gizarte Zerbitzuetako profesionalek, eta dauzkagun beharrizan guztiak aintzat hartuko dituzte. Horretarako, bizi ditugun testuinguruei erreparatuko diete, une honetan dauzkagun arazoak gainditzeko ahaleginak egingo dituzte, eta harremanak hainbat sistemaren (familia, ikastetxea, lan merkatua, komunitatea, etab.) barruan dauzkagula kontuan hartuko dute.

Batzuetan, nola hartuko gaituzte? galdetzen diogu geure buruari. Kasu honetan, funtsezko hiru printzipiotan oinarriturik: duintasuna, pertsonak beren bizitza kudeatzeko duten askatasuna eta berdintasuna. Baita begirunea, onarpena eta aurreiritzirik eza. Printzipio horiek kontuan izanik, arreta emango digute eta hala eskatu ahal izango dugu:


-  Adierazten dugun identitatearen arabera.
-  Zerbitzu bakoitzean ari diren profesionalen artean bat aukeratu dezakegu.
-  Profesionalek informazioa dute eta zein erakunde, entitate edo elkartetara jo erabakitzen lagundu diezagukete.
-  Gainera, hurrei dagokienez, familiaren eta/edo ingurunearen prozesuan gerta litezkeen arazoei egin diezaiekete aurre; eta beste zerbitzuekin koordinatuta (kontsultak Familia eta Adingabeen Zuzendariordeztan, egoera ez onartzeagatik etxean indarkeria arazoak baldin badaude; Hezkuntza Departamentuan jazarpen transfobikoaren ondorioz eskola porrota geratzen bada; Chrysallis Euskal Herria elkartearen seme-alaba transexualak dauzkaten gurasoen sarera biltzeko).

## IRADOKIZUN, ESKAERA EDO ESKARIREN BAT BADUGU...

Iradokizunak, eskariak eta instantziak egiteko, harremanetan jarri:

-  [http://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Asuntos+sociales/](http://www.navarra.es/home_es/Temas/Asuntos+sociales/)
-  Eskubide Sozialetako Departamentua, González Tablas kalea, 7 behea (Iruñea)





## Gazteria

### NORA JO?

Gazteak bagara eta informazioa bilatu edo behar badugu, hemen aurkituko dugu:



<https://www.deporteyjuventudnavarra.es/es/portada-1>



Gazteria zuzendariordetza, herritarrei eta bereziki gazteei arreta emateko zerbitzua duena.



[www.deporteyjuventudnavarra.es/es/red-de-informacion-juvenil](http://www.deporteyjuventudnavarra.es/es/red-de-informacion-juvenil)  
[www.deporteyjuventudnavarra.es/es/joven-e-igualdad](http://www.deporteyjuventudnavarra.es/es/joven-e-igualdad)



Yanguas y Miranda kalea, 27 (Iruñea)



8:30etatik 14:30ak arte (Al-Or)



848.423900



[juventud@navarra.es](mailto:juventud@navarra.es)



Nafarroako gazteentzako informazio Sareko zentro koordinatzailea, informazioa emateko oinarrizko bi jarduera bideratzen dituena:

- Nafarroa osoko gazteentzako informazio Sarea koordinatzen du, hainbat Udalen mendeko 34 bulego eta gune. Gurea aurkitu nahi badugu: <https://www.deporteyjuventudnavarra.es/es/enlaces-de-interes-1>
- Eta INJUVERen (Gazteriaren Institutu Nazionala) Sarean ere badago, autonomia erkidegoen mendeko 3.000 informazio gune biltzen dituen sarean. Honako esteka honetan ezagutu ditzakegu gune horiek eta eskaintzen dituzten zerbitzuak: <http://www.in-juve.es/conocenos/red-de-centros-de-informacion-juvenil>



Nafarroako Gazteriaren Kontseiluan ere informazioa eman diezagukete. Gainera, osasun arloa ere badu, eta bertan lehen informazioa eskaini diezagukete, pertsona espezializatu bat ari baita bertan.



<https://cjn-ngk.org/>



Yanguas y Miranda kalea, 27 (Iruñea)



8:00etatik 14:00ak arte (Al-Or)



848.412919 / 680666877



[info@cjn-ngk.org](mailto:info@cjn-ngk.org)

Zerbitzu horiek jasotzeko ez dugu aldez aurreko hitzordurik eskatu behar, bertaratu eta une horretan dagoen profesionalak hartuko gaitu. Behar dugunaren arabera, hauxe gerta liteke:



Zuzenean informatzea zerbitzu hauetako batean:




Adibidea: gazteria arloan: beka edo plazak eskatzea udako kanpamentuetara edo lan eremuetara joateko, prestakuntza ikastaroak jasotzeko, denbora libreko begiraleentzako ikastaroak egiteko, gazteei abantailak ematen dizkieten gazte txartelak lortzeko, etab.



Informazioa edo arreta emateko beste baliabide espezifikoetara bideratzea, betiere geure beharrezanaren arabera (hezkuntza, gizarte zerbitzuak eta transexualitateari buruzko baliabide espezifikoak).





## ZERTARAKO JOAN? GEURE BEHARRIZANEI ERANTZUTEN DIETEN ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK

Interesgarri izan dakizkigukeen hainbat programa eskaintzen ditu Gazteria departamentuak:

PROGRAMA	HARTZAILEAK	EKINTZAK
<b>AISIALDIKO PRESTAKUNTZA ESKOLAK</b>	Gazteak	Hezitzaileentzako prestakuntza: eskola horietako batzuk hezkidetzan, adimen emozionalean, begiraleentzako ikastaroetan eta aisialdiko zuzendarientzako ikastaroetan daude espezializatuak.
<b>NAFARROAKO GAZTEENTZAKO JARDUEREN ESKOLA (NGJE)</b>	Gazteak	Prestakuntza programa hau gazteei, gazteen elkarte eta taldeei eta gazteria agenteei zuzenduta dago. Trans gaiak txertatu ditzake bere programazioan.
<b>DEIALDIAK GAZTE ELKARTEENTZAT ETA TOKI ERAKUNDEENTZAT</b>	Gazte elkarteak eta Udalak	Prebentzioa, informazioa, prestakuntza eta ekintza zehatzak ardatz hartuta, aniztasuna eta berdintasuna aintzat hartzen dituzten proiektuak kontuan hartzen eta lehenesten dira.

Eskuarki doakoak dira Gazteria arloak eskaintzen dituen zerbitzuak, baina badira salbuespen batzuk. Esate baterako, udako kanpamentuak eta prestakuntza ikastaroak ordaindu egin behar dira zenbaitetan.



## NORTZUK DITUGU LAGUN PROZESU HONETAN ETA NOLA LAN EGITEN DUTE?

Zerbitzu honetan integrala da arreta, eta honakoak dira oinarrizko printzipioak: entzute aktiboa eta afektiboa, begirunea eta elkarrizketa, enpatia eta konfidentzialtasuna. Gainera, informazioa eta prestakuntza eskaintzen dituzte hezkuntza ez formalaren baitan, eta lagundu diezaguketen lekuen, teknikarien eta beharrezko izan ditzakegun baliabideen berri ematen digute.

Hortaz, arreta emango digute eta arreta eskatu ahal izango dugu:

Geure identitatearekin bat etorrita.



Ongi prestatuta daude arreta emango diguten pertsonak, eta ongi ezagutzen dute gazteei eragiten dien guztia; horregatik, oso kontuan hartuko dute geure dimentsio eta identitate guztien garapena.



Gainera, kirol alorreko zuzendariordetzak badu unitate bat kirol esparruan gerta litezkeen gatazkak gainditzeko eta, behar izanez gero, jazarpenari aurrea hartzeko.



848.427845



Beharrezkoa baldin bada, beste departamentuekin (osasuna, gizarte zerbitzuak, etab.), zerbitzu publikoekin (Kattalingune eta Harrotu) eta erakundeekin (Kattalingorri) koordinatuta lan egiten du.

## IRADOKIZUN, ESKAERA EDO ESKARIREN BAT BADUGU...

Harremanetan jar gaitzke:




Informazio eta prestakuntza arloko bulego nagusia



848.427844





## Enplegua

Zenbaitetan, enpleguari buruzko informazioa behar izaten dugu, nola bilatu eta lortu, nola eutsi, nola hobetu eta baita nola sortu ere.

### NORA JO?

Informazioa, orientazioa, prestakuntza edo enpleguan laguntza behar badugu, Nafarroako Gobernuaren Servicio Navarro de Empleo-Nafar Lansare dugu funtsezko baliabidea: herritarrei arreta emateko 10 bulego ditu lurralde osoan barrena.



Servicio Navarro de Empleo - Nafar Lansare



[www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es)

Web honetan kontsultatu dezakegu geure helbideari dagokion posta kodearen arabera zein den gure enplegu bulegoa.



[http://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Empleo+y+Economia/Empleo/Informacion/Servicio+Navarro+de+Empleo/Donde+estamos/](http://www.navarra.es/home_es/Temas/Empleo+y+Economia/Empleo/Informacion/Servicio+Navarro+de+Empleo/Donde+estamos/)



Dagokigun bulegoaren helbidera



8:30etatik 14:30ak arte (Al-Or), hilabete bakoitzeko azken astelehenean izan ezik:  
8:30etatik 13:30ak arte



Bulego bakoitzeko zenbakia

Beharrezkoa baldin badugu gure prozesuan norbaitek aholkuak ematea edo laguntzea, aldez aurretik hitzordua eskatu dezakegu dagokigun enplegu bulegoan. Bertaratzen garen lehen aldia baldin bada, orientabide profesional arloko pertsonarekin jar gaitzke harremanetan, izan ditzakegun laneko beharizanetan (informazioa, enplegua bilatzeko edo hobetzeko, etab.) lagunduko digu. Gure erreferentziatzko pertsona izango da, behar edo eskatzen dugun guztietan lagun izango duguna. Berekin negoziatuko dugu laguntza hori nolakoa izango den (hitzorduak, denborak, enplegua bilatzeko edo hobetzeko estrategiak, etab.).

Behar dugunaren arabera, hauxe gerta liteke:



Arreta Servicio Navarro de Empleo - Nafar Lansaren bertan ematea, beren baliabideekin edo orientabidean espezializatuak diren erakundeen bitartez.



Adibidea: Enpleguaren arloan: alta ematea enplegu eskaeran edo hobekuntzan, orientabide profesionala, prestakuntza, lan eskaintzak eta lana lortzeko bideak, autoenplegua, ekintzailtza eta ekonomia soziala.




Edo egokiago irizten diren beste zerbitzu espezifikoetara bideratzea: instituzioetara (Osasun zentroak, Familia eta Adingabeen Zuzendariorde) edo transexualitate egoeran dauden pertsonekin lan egiten duten erakunde jakin batzuetara (Kattalingune, Chrysallis Euskal Herria, Transkolore, etab.).




Zenbaitetan, pertsona bati eragin diezaiolke transfobiak, zaugarritasuna emendatu dezake eta arazo ugari pilatzea dakar horrek (intersekzionalitatea). Enpleguaren alorrean ere modu pertsonalizatuan lan egiten denez, oso kontuan hartzen dira zaugarritasun handieneko faktoreak, eta lagun diezaguketuen zerbitzuen eta baliabideen (Gizarte Zerbitzuak gizarte laguntzak izapidetzeko, edo Kattalingune eta Harrotu bezalako erakunde espezializatueta bideratzeko) berri ematen digute. Gainera, guri laguntzeko funtsezko bi tresna dauzkate:

a) Laneratzeko ekintzak enpresetan: praktika ez laboralak, enplegu Eskolak/Tailerrak, prestatzeko eta enplegua aurkitzeko programak, profesionaltasun agiriak lortzeko praktikak, etab.

b) Kolektibo kaltetuak laneratzeko ekintzak: laguntzak gizarteratzeko enpresei edo gizarte laguntzak (bermatutako errenta) jasotzen ari diren pertsonak kontratatzen dituztenei, etab.





## ZERTARAKO JOAN? GEURE BEHARRIZANEI ERANTZUTEN DIETEN ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK

Honako hauek dira SNE-NLak eskaintzen dizkigun zerbitzuak, orain edo etorkizunean oso baliagarriak izan dakizkigukeenak:

ZERBITZUAK	HARTZAILEAK	EKINTZAK
<b>LANERATZEKO ORIENTABIDEA</b>	Pertsona guztiak	Nafarroa osoan barrena dauden 10 bulegoen eta eskualde guztietako entitate laguntzaileen Sarearen bitartez, enplegua bilatzeko prozesuan laguntzen du alderdi praktikoan (ekintza plana).
<b>ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA ETA GAITASUNAK EGIAZTATZEA</b>	Pertsona guztiak, baita titulaziorik ez dutenak ere	Laneko sustapena bultzatzen du bi bidetan: prestakuntza zentro publikoetan (Iturrondo, Cenifer edo hezkuntza zentroak) eta Nafarroako osoko prestakuntza entitateetan; eta denboraren joanean lortu dugun laneko esperientziagatiko gaitasun profesionalen aitortza.
<b>BITARTEKARITZA</b>	Pertsona guztiak	www.navarra.es eta Empleo-Lansare Twitter bidez enplegu eskaintzak eta laneratzeko beste bide batzuk kudeatzen ditu eta haiei buruzko informazioa ematen du.
<b>AUTOENPLEGUA ETA EKONOMIA SOZIALA SUSTATZEKO AHOLKULARITZA</b>	Pertsona, enpresa eta gizarte erakunde guztiak	www.navarra.es helbidearen, "Servicio Navarro de Empleo - Nafar Lansare" mugikorrentzako aplikazioaren eta "@empleo_na" Twitter bidez enplegu eskaintzari eta laneratzeko beste bide batzuei buruzko informazioa ematen du.

SNE-NLk eskaintzen dituen zerbitzu guztiak doakoak dira baldintza jakin batzuk betetzen badira: lan egiteko adina izatea, baimen administratiboa izatea (atzerriko pertsonak) eta enplegu bulegoan enplegu eskatzaile gisa edo enplegua hobetzeko eskatzaile gisa inskribatuta egotea.


## NORTZUK DITUGU LAGUN PROZESU HONETAN ETA NOLA LAN EGITEN DUTE?

Enplegu zerbitzuetan lan egiten duten profesionalak modu pertsonalean eta bakarka emango digute arreta enpleguarekin lotutako geure beharriaz dagokienez, balio handiagoa emango diete dauzkagun baliabideei (aurreko laneko esperientzia, taldean lan egiteko gaitasuna, etab.), eta gurekin batera lan egingo dute enplegua bilatzeko, hobetzeko edo sortzeko.

Gainera, SNE-NLk bermatu egiten ditu enplegua berdintasun egoeran lortzeko baldintzak, bermatu egiten du geure egoera edo baldintzengatik diskriminaziorik ez izatea, eta lagundu egiten digu laneko merkatuan zailtasun bereziak dauzkagunean. Arreta horretan funtsezkoak dira begirunea, entzutea, onarpena eta elkarrizketetan adierazitakoen konfidentziasuna. Hortaz, geure transexualitate prozesuan, arreta emango digute eta halaxe eskatu ahal izango dugu:

- ☺ Guk adierazten dugun izenarekin (NAN edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakia eskatuko digute, horixe baita euren datu basean ageri dena). Erregistro Zibilean aldaketa egitean jakinarazi egin behar da izena eguneratu dezaten.
- ☺ Guk nahi dugun teknikaria aukeratu dezakegu, geure erreferentziazko pertsona baita.
- ☺ Enplegu bulegoetan transexualitateari buruzko informazio zerbitzu espezifikorik ez dagoen arren, bilatuko dute zein departamentuk edo elkartek lagundu diezagukeen. Laneko esperientzietan jazarpen transfobikoa edo diskriminazioa jasan baldin badugu, lagunduko digute baliabide egokia aurkitzen (Lan Ikuskaritza, sindikatuak, Lan Epaitegia, doako laguntza juridikoa, etab.).
- ☺ Profesionalak badute transexualitatea bezalako gai zehatz batez informatuak izateko astirik. Horrenbestez, behin gu ezagutu eta gero, prestatuago eta sentsibilizatuago egongo dira beste baterako.
- ☺ Hala behar duenean, beste zerbitzu batzuekin (departamentuak, elkarteak edo gizarte higikundeak, etab.) koordinatuta jarduten dute teknikariek.
- ☺ Kexuak eta iradokizunak egiteko orria eska dezakegu SNE-NLri guk dauzkagun hobetzeko proposamenak helarazteko.





## IRADOKIZUN, ESKAERA EDO ESKARIREN BAT BADUGU...

Hauetara jo dezakegu:




[www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es)



Gure enplegu bulegora





## Nafarroako Berdintasunerako Institutua (NABI)

### NORA JO?

Transexualitateari buruzko informazioa behar badugu, hortxe ditugu:



[https://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Igualdad+de+genero/](https://www.navarra.es/home_es/Temas/Igualdad+de+genero/)



Alondegí kalea 1, 2.a. Komeni da alde z aurretik hitzordua eskatzea



8:30etatik 14:30ak arte (Al-Or)



848.421588



instituto.navarro.igualdad@navarra.es  
lgtbi.inai@navarra.es

### ZERTARAKO JOAN? GEURE BEHARRIZANEI ERANTZUTEN DIETEN ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK

Transexualitateari dagokionez, guretzat oso lagungarriak izan daitezkeen hiru baliabide daude NABI n.





LGTBI Berdintasun Unitateak eskainiak:

- a. Aholkularitza teknikoa LGTBI gai n
- b. Laguntza LGTBI berdintasunean oinarritutako esku hartzean eta prestakuntzarako proposamenak LGTBI gai n.
- c. LGTBI kolektiboaren errealitateari buruzko ezagutzaren zabalkundea



## NORTZUK DITUGU LAGUN PROZESU HONETAN ETA NOLA LAN EGITEN DUTE?

NABIk bideratzen duen esku hartzea integrala da, aintzat hartzen du genero ikuspegia, eta Giza Eskubideetan dago oinarrituta. Ematen diguten arretaren printzipioak dira begirunea, pertsonalizazioa, entzutea, onarpena, empatia, konfidentzialtasuna eta hizkuntza inklusiboa. Gainera, sexu identitatea eta genero identitatea pertsonen eskubideen zatitzat dute, harrera egiten diote eta begirunea diote aniztasunari, eta horrexegatik saihesten dituzte estereotiporik arruntenak: binarismo sexuala (gizona/emakumea), genero rola, heterosexualitatea eta patriarkatua. Hortaz, arreta emango digute eta arreta eskatu ahal izango dugu:

-  Geure identitatearekin bat etorrita.
-  Kattalinguneren bitartez lan egiten dute ahalduntzeko laguntza sareak sortzeko, guk geuk ere eskatu edo partaide izan gaitzkeen sareak sortzeko.
-  Gainera, Kattalingunerekin koordinatuta, sentsibilizatzeko ekintzak egiten ditu LGBTI berdintasun unitate honek.
-  Gure prozesuan laguntzeko, beste Administrazio Publikoekin (Sexu eta ugalketa osasun zentroak, berdintasun arloko udal langileak, etab.), Nafarroako LGBTI Informazio eta Arretarako Zerbitzu Publikoarekin (Kattalingune) eta transexualen eta familien erakunde espezifikoekin (Transkolore eta Chrysallis Euskal Herria) koordinatuta lan egiten dute.


## IRADOKIZUN, ESKAERA EDO ESKARIREN BAT BADUGU...

Iradokizunak, eskaerak eta eskariak egiteko:

 [lgbi.inai@navarra.es](mailto:lgbi.inai@navarra.es)

 Alondegi kalea 1, 2.a. Iruñea





## Kattalingune. Nafarroako Gobernuaren LGTBI Informazio eta Arretarako Zerbitzu Publikoa

Kattalingune da Nafarroa osorako LGTBI Informazioan eta Arretan espezializatutako zerbitzu publikoa. Nafarroako Berdintasunerako Institutuak (NABI) hitzarmen bat du sinatua Kattalingorrirekin zerbitzua kudeatzeko.

Spot bat du zerbitzuak bere burua aurkezteko:  
[https://www.youtube.com/watch?v=xveg\\_Q67k4l&t=2s](https://www.youtube.com/watch?v=xveg_Q67k4l&t=2s)

### NORA JO?

Harremanetan jarri nahi badugu Nafarroa osoari erantzuten dion zerbitzu honekin, hona hemen aukerak:



[www.kattalingune.org](http://www.kattalingune.org)



Abejeras kalea 41 B, 37. bulegoa (Iruñea)  
Rua kalea 33, Zentro Zibikoa (Tutera)



#### IRUÑEA

Astelehena. 9:30etatik 14:00ak arte

Asteartea. 17:00etatik 20:00ak arte

Asteazkena. 9:30etatik 14:00ak arte

Osteguna. 9:30etatik 14:00ak arte eta 17:00etatik 20:00ak arte

#### TUTERA

Osteguna. 16:00etatik 20:00ak arte



948.229149 edo 667528466  
617 384 932 (Tutera)



[kattalingune@kattalingune.org](mailto:kattalingune@kattalingune.org)  
[riberakgune@gmail.com](mailto:riberakgune@gmail.com) (Tutera)



Whatsapp 667528466, Twitter@kattalingune edo Facebook





## ZERTARAKO JOAN? GEURE BEHARRIZANEI ERANTZUTEN DIETEN ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK

Kattalingunen arreta zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta zerbitzu horietan funtsezko dira entzutea, harrera eta bizi dugun egoeran laguntzea. Arreta horretan ardatz dira harrera, informazioa, aholkularitza eta beste baliabide batzuetara bideratzea, prestakuntza eta erreferentziatzko beste taldeekin harremanetan jartzea.

ZERBITZUAK	HARTZAILEAK	EKINTZAK
<b>INFORMAZIOA ETA ORIENTABIDEA</b>	LGTBI pertsonak, familiak eta gertukoak	Transexualentzat edo beren familientzat eta gertukoentzat erabilgarriak izan daitezkeen zerbitzuaren beraren eta administrazio publikoaren baliabideei buruzko informazioa eman eta orientabidea eskaintzen du. Era berean, LGTBI elkarteei buruzko informazioa eman eta haiekin harremanetan jartzen gaitu.
<b>AHOLKULARITZA SEXOLOGIKOA ETA PSIKOSOZIALA</b>	LGTBI pertsonak eta familiak	Sexu eta genero identitatearen inguruan sortzen diren kezkek edo zalantzak argitzen laguntzen du. Eta gai honi buruzko prestakuntza eskaintzen du.
<b>LIBURUTEGIA ETA MEDIATEKA</b>	Transexualak, familiak eta gertukoak, eta herritarrak oro har	LGTBI kolektiboaren errealitatea ikusarazten die herritarrei LGTBI fobia desagerrarazteko. Gainera, LGTBI pertsonen, familien eta gertukoen informazioa eta orientabidea ematen dizkie, eta prestatzen ditu.
<b>AKTIBAZIOA ETA LAGUNTZA LGTBI GAIAN</b>	Nafarroako edozein herritako LGTBI taldeak edo edozein elkarte	Laguntza eta aholkularitza taldeak sortzeko eta sexu eta genero aniztasunari buruzko ikuspegia ezartzeko.

Doakoak dira Kattalingunek eskaintzen dituen zerbitzuak.





## NORTZUK DITUGU LAGUN PROZESU HONETAN ETA NOLA LAN EGITEN DUTE?

Euren lana integrala da, horizontala (erabiltzailearen eta profesionalaren artekoa), ikuspegi sexologikoarekin eta genero ikuspegiarekin. Sexologian, generoan eta adin guztietako - haurrak, gazteak eta helduak- pertsona transei arreta ematen adituak dira zerbitzuko profesionalak. Gainera, esperientzia handia dute gai honetan, laguntza handia eman diezagukete.

Zerbitzu espezializatua denez, harrera egingo digutela bermatuko digu, eta halaxe eskatu ahal izango dugu:

- ☺ Geuk adierazitakoaren arabera, tratatuak izan nahi dugun eran eta guregana zuzentzeko nahi dugun moduan. Eta hori une oro errespetatuko da.
- ☺ Geuk aukeratu dezakegu lagundu eta arreta emango digun teknikaria. Transexualitate eta genero gaietan prestatuta egongo da profesional hori.
- ☺ Gure biografia pertsonalaren bitartez lagunduko digute, geuk azaldu bezala entzungo dute. Isilpean gordeko da esaten dugun guztia.
- ☺ Kontuan izanik egiten dugun balioespina eta eskaera, geure familiei eta gertukoei ere eman diezaiekete arreta. Gainera, behar izanez gero, informazioa eta orientabidea emango dizkigute.
- ☺ Eskuragarri dauzkagun materialak dauzkate; Nafarroan transexualitatearen inguruan izaten diren kanpainei buruzko informazioa eman diezagukete; eta transfobia kasuetan, aintzat hartzen dituzte alderdi sozialak eta pertsonalak, eta laguntza prozesu bat bideratzen dute ikastetxe eta familia testuinguruak kontuan harturik, dena guri hobe lagundu ahal izateko.
- ☺ Aldiro-aldiri Administrazio Publikoarekin (osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, NABI, etab.) eta transexualen eta familien elkarteekin (Illota Ledo, Transkolore, Chrysallis Euskal Herria, etab.) koordinaturik lan egiten dute.
- ☺ LGBTBI pertsonen eskubideak babesteko sareetan, plataformetan eta batzordeetan parte hartzen du.



## IRADOKIZUN, ESKAERA EDO ESKARIREN BAT BADUGU...

Hauen bidez jar gaitzke harremanetan:




kattalingune@kattalingune.org  
riberakgune@gmail.com (Tutera)



Abejeras kalea 41 B, 37. bulegoa (Iruñea)  
Rua kalea 33, Zentro Zibikoa (Tutera)





## Harrotu, LGTBI gunea. Iruñeko Udaleko sexu eta genero aniztasun Arretarako udal zerbitzua

Harrotu da sexu eta genero aniztasunari arreta eskaintzen dion Iruñeko udal zerbitzua. Gaur egun Kattalingorriko talde profesionalak kudeatzen du.

### NORA JO?

Harremanetan jarri nahi badugu Iruñeko herritar guztiei erantzuten dien zerbitzu honekin, hona hemen nora jo:



San Gregorio kalea 28, behea



Neguko ordutegia: 9. 30-13. 30 eta 16. 00-20. 00 (Al-Or)

Udako ordutegia: (Al, Az, Or) 9. 00-17. 00; (As, Og) 9. 00-13. 00 eta 15. 00-19. 00



948.22.63.26

699 384 965



lgtbi@pamplona.es




## ZERTARAKO JOAN? GEURE BEHARRIZANEI ERANTZUTEN DIETEN ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK

Harrotun arreta zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta zerbitzu horietan funtsezko dira entzutea, harrera eta bizi dugun egoeran laguntzea. Arreta horretan ardatz dira harrera, informazioa, aholkularitza eta beste baliabide batzuetara bideratzea, prestakuntza eta erreferentziazko beste taldeekin harremanetan jartzea.

ZERBITZUAK	HARTZAILEAK	EKINTZAK
<b>INFORMAZIOA ETA ORIENTABIDEA</b>	LGTBI pertsonak, familiak eta gertukoak	Transexualentzat edo beren familientzat eta gertukoentzat erabilgarriak izan daitezkeen zerbitzuaren beraren eta administrazio publikoaren baliabideei buruzko informazioa eman eta orientabidea eskaintzen du. Era berean, LGTBI elkarteei buruzko informazioa eman eta haiekin harremanetan jartzen gaitu.
<b>AHOLKULARITZA SEXOLOGIKOA ETA PSIKOSOZIALA</b>	LGTBI pertsonak eta familiak	Sexu eta genero identitatearen inguruan sortzen diren kezkak edo zalantzak argitzen laguntzen du. Eta gai honi buruzko prestakuntza eskaintzen du.
<b>LIBURUTEGIA ETA MEDIATEKA</b>	Transexualak, familiak eta gertukoak, eta herritarrak oro har	LGTBI kolektiboaren errealitatea ikusarazten die herritarrei LGTBI fobia desagerrarazteko. Gainera, LGTBI pertsonen, familien eta gertukoekin informazioa eta orientabidea ematen dizkie, eta prestatzen ditu.
<b>ELKARRI LAGUNTZEKO TALDEAK (ELT)</b>	LGTBI pertsonak	LGTBI pertsonen beren sexu identitateari eta/edo orientazioari buruz askatasun osoz hitz egiteko gunea, esperientziak partekatzeko eta beste lagunen eskutik ere ikasteko. Isilpean gordetzen da taldean lantzen den guztia.
<b>AHOLKULARITZA JURIDIKOA</b>	LGTBI pertsonak	Aholkularitza gai juridikoetan.
<b>AISIA ETA DENBORA LIBREA</b>	LGTBI pertsonak eta gertukoak	Sareak eta bilguneak sortzeko aisialdiko jarduerak.

Doakoak dira Harrotuk eskaintzen dituen zerbitzuak.



## NORTZUK DITUGU LAGUN PROZESU HONETAN ETA NOLA LAN EGITEN DUTE?

Euren lana integrala da, horizontala (erabiltzailearen eta profesionalaren artekoa), ikuspegi sexologikoarekin eta genero ikuspegiarekin. Sexologian, generoan eta adin guztietako - haurrak, gazteak eta helduak- pertsona transei arreta ematen adituak dira zerbitzuko profesionalak. Gainera, esperientzia handia dute gai honetan, laguntza handia eman diezagukete.

Zerbitzu espezializatua denez, harrera egingo digutela bermatuko digu, eta halaxe eskatu ahal izango dugu:

- ☺ Geuk adierazitakoaren arabera, tratatuak izan nahi dugun eran eta guregana zuzentzeko nahi dugun moduan. Eta hori une oro errespetatuko da.
- ☺ Geuk aukeratu dezakegu lagundu eta arreta emango digun teknikaria. Transexualitate eta genero gaietan prestatuta egongo da profesional hori.
- ☺ Gure biografia pertsonalaren bitartez lagunduko digute, geuk azaldu bezala entzungo dute. Isilpean gordeko da esaten dugun guztia.
- ☺ Kontuan izanik egiten dugun balioespina eta eskaera, geure familiei eta gertukoei ere eman diezaiekete arreta. Gainera, behar izanez gero, informazioa eta orientabidea emango dizkigute.
- ☺ Eskuragarri dauzkagun materialak daukate; Nafarroan eta Iruñean transexualitatearen inguruan izaten diren kanpainei buruzko informazioa eman diezagukete; eta LGTBI pertsonen eskubideak babesteko sareetan, plataformetan eta batzordeetan (E28J Plataforma - LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna, etab.) parte hartzen dute.
- ☺ Transfobia kasuetan, aintzat hartzen dituzte alderdi sozialak eta pertsonalak, ebaluazio psikopedagogiko bat egiten dute eta kontuan hartzen dituzte ikastetxe eta familia testuinguruak guri hobe lagundu ahal izateko.
- ☺ Aldiro-aldiri Administrazio Publikoarekin eta transexualen eta familien elkarteekin (Transkolore, Chrysallis Euskal Herria, etab.) koordinaturik lan egiten dute.



## IRADOKIZUN, ESKAERA EDO ESKARIREN BAT BADUGU...

Hauen bidez jar gaitzke harremanetan:



lgtbi@pamplona.es



San Gregorio kalea, 28 behe



948.22.63.26




Sare sozialak:


Twitter @Harrotu\_lgtbi

Instagram @Harrotu\_lgtbi

Facebook Harrotu







## Transexualen eta familien elkarteak

### Chrysallis Euskal Herria

Nafarroako lurraldean lan egiten duen adingabe transexualen familien elkartea da Chrysallis Euskal Herria.

#### NORA JO?

Hona hemen Chrysallis Euskal Herria elkartearekin harremanetan jartzeko bidea:



<http://chrysalliseh.eus/>



688728055



[info@chrysalliseh.eus](mailto:info@chrysalliseh.eus) edo [familia@chrysalliseh.eus](mailto:familia@chrysalliseh.eus) edo [nafarroa@chrysalliseh.eus](mailto:nafarroa@chrysalliseh.eus)



Era berean, elkarteko edozeinengana jo dezakegu eskaini ohi dituzten hitzaldietan.

Ahalik eta azkarren erantzungo da, eskuarki oharra jaso eta ordu gutxi batzuetara.

#### ZERTARAKO JOAN? GEURE BEHARRIZANEI ERANTZUTEN DIETEN ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK

Harremanetan jar gaitzke orientabidea edo informazioa eskatzeko; transexualitate egoeran dauden adingabeetan aditua den sexologo baten laguntzarekin emango digute arreta. Gainera, haur eta gazte transexualen errealitatea hobe ezagutzeko aukera emango digun oinarritzko baliabide sorta bat (liburuak, idatziak, bideoak, filmak, etab.) eskainiko digute, eta antzeko egoerak bizi izan dituzten familiak ezagutzeko egokiera emango digute, haiekin kontsultatu ahal izango ditugu zalantzak, edo partekatu ahal izango ditugu geure esperientziak. Adingabe transexualen familientzako eta zalantzak dituen eta errealitate honen inguruan informazio bila dabilen edozein pertsonarentzako informazio eta topagune bat eskaintzen dute. Bestalde, adingabe transexualen familientzako irteerak eta asteburuko topaketak antolatzen dituzte.



Chrysallis Euskal Herria elkartearen aburuz, ezagutzaren zabalkundea da transfobiaren eta transexualitatearen aurreko arbuioaren aurkako tresnarik eraginkorrena, eta horregatik hain zuzen ere, sentsibilizazio, hitzaldi, konferentzia eta dibulgazio kanpainak egiten ditu hedabideetan.


Doakoa da Chrysallis Euskal Herria elkarteak eskaintzen duen arreta.

## NORTZUK DITUGU LAGUN PROZESU HONETAN ETA NOLA LAN EGITEN DUTE?

Chrysallis Euskal Herria elkartearen arreta pertsonalizatuaren eredu biografian, entzute aktiboan, enpatian, geure erabaki eta erritmoekiko errespetuan eta geure seme-alabenganako maitasunean oinarritzen da, eta balio handia ematen dio aniztasunari. Prozesuan zehar (etxean, familia zabalean eta ingurune hurbilean, ikastetxean, osasunean, arlo juridikoan eta kirol esparruan, edo jazarpen egoeretan eta besteetan) sor litezkeen beharizanen aurrean lagundu eta aholkuak ematen dizkigute. Hortaz, arreta emango digute eta halaxe eskatu ahal izango dugu:

- ☺ Geure identitatea errespetatuz.
- ☺ Haur eta gazte transexualen inguruan prestakuntza handia duten pertsonak emango digute arreta, elkarteko gurasoek eta haiekin lan egiten duten sexologoek.
- ☺ Haur transexualen errealitateari buruzko ikerlanak dauzkate eginda, baita prozesu honetan nola lagundu azaltzeko azterlanak ere.
- ☺ Beren web orrian jasota dauzkate haur eta gazte transexualitateari buruzko gure ezagutzak hobetzeko balio duten informazio baliabideak; informazio eta prestakuntza saioak antolatzen dituzte, eta beste erakunde batzuek transexualitatearen inguruan egiten dituztenak (hitzaldiak, unibertsitateko prestakuntza, sexologia ikastaroak, hitzaldiak, kongresuak, etab.) ezagutarazten dituzte.
- ☺ Guri eta geure familiari edo gertukoei lagundu diezagukete nola arlo emozionalean eta elkarrekiko laguntzan hala arlo sexologikoan. Aitzitik, ez dute laguntza psikologikorik eskaintzen.
- ☺ Transexualitatearen errealitatearen, gizarte presioaren eta bizi den jazarpen transfobikoaren inguruko sentsibilizazio kanpainetan parte hartzen dute; transexualitatea aniztasunaren beste zati bat dela ulertarazteko materialak sortzen





dituzte; transexualitatea despatologizatzeko lan egiten dute (hau da, transexualitatea gaixotasun gisa hartua izan ez dadin), baita Giza Eskubideak urratzen dituzten transexualitateari buruzko legeak aldatu ditzatela eskatzeko ere.

- ☎ Gainera, gure etxean arazoak baldin badaude, Gizarte Zerbitzuetara lagundu gaitzakete beharrian hauei halako premiaz erantzun ahal izateko.
- ☎ Errealitate honi arreta emateko xedean esku hartzen duten zerbitzu publikoekin (NABI, hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, etab.) koordinatuta lan egiten du; baita Kattalinguneko eta Harrotuko arreta sexologikoko Zerbitzuarekin ere, horiek baitira haur transexualen kasuetan arreta integrala kudeatzen dutenak; era berean, Chrysalis AFMT erakundearekin (estatu mailakoa), Kattalingorri (Nafarroako LGTBI elkarteak biltzen dituen entitatea) entitatearekin eta E28J plataformako helduen elkarte guztiekin dago harremanetan.


## IRADOKIZUN, ESKAERA EDO ESKARIREN BAT BADUGU...

Hauekin jar gaitezke harremanetan:

- ✉ info@chrysalis.eus  
Nafarroan: nafarroa@chrysalis.eus
- ✉ Posta arrunta arreta espezifikoetarako:
  - ✉ Familiak: familia@chrysalis.eus
  - ✉ Hedabideak: prentsa@chrysalis.eus
  - ✉ Materialak erosteko: denda@chrysalis.eus
- ☎ 688728055







## Transkolore. Nafarroako transexualen elkartea

Uneren batean informazio zehatza behar izaten dugu, edo Nafarroan dauden aholkularitza eta gizarte laguntza sarea osatzen duten erakundeak ezagutzeko premia sortzen zaigu.

### NORA JO?

Informazioa bilatzen badugu, hauetan aurkituko dugu:



<https://es-la.facebook.com/Transkolore-1302582736494841/>



[transkolore@gmail.com](mailto:transkolore@gmail.com)

### ZERTARAKO JOAN? GEURE BEHARRIZANEI ERANTZUTEN DIETEN ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK

Aholkularitzaren edo laguntzaren bila bagabiltza:

1. Elkartearekin jar gaitezke harremanetan, izan ere:



Agian une honetan baliagarria izan dakiguke elkarri laguntzeko, harrera egiteko eta berdinen arteko espazioa osatzen duen taldera, Transkolorek berak boluntario batzuen laguntzarekin antolatzen duen taldera, biltzeko.



Kattalingune eta Harrotu LGTBI zerbitzu espezifikoek eskaintzen dituzten zerbitzuen eta baliabideen berri eman diezagukete.



Gainera, aktibistak dira, eta beraz, harremanetan daude estatu mailako beste aktibistekin eta elkarteekin.



## NORTZUK DITUGU LAGUN PROZESU HONETAN ETA NOLA LAN EGITEN DUTE?

Transexualak direnez, beren bizipenetatik eta bildutako informaziotik eta prestakuntza pertsonaletik abiatuta lagundu eta informatu diezagukete.

Doakoa da Transkolorek eskaintzen duen arreta.

Elkartera jotzen badugu, berdinen artean hartuko gaituzte ikuspegi hauek ardatz hartuta:



Pertsona da erdigunea, bere beharrianak eta kezkak, bere abiapuntua eta erritmoa. Horregatik jartzen dira gurekin harremanetan onarpena, aniztasuna, berdintasuna, horizontaltasuna, begirunea, entzutea, enpatia, konfidentzialtasuna eta beste batzuk oinarri hartuta.



Adierazten dugun identitatearen eta izenaren arabera emango digute arreta.



Boluntarioak direnez, eskatzen dugunean emango digute arreta, baina guk ez dugu arreta emango digun pertsona aukeratzetik izango.



Ez dute baldintzarik bat ere jartzen arreta emateko.




Ez formala izan ohi da biltokia, edo Kattalingune zerbitzuaren lokala edo Kattalingune eta Harrotu zerbitzu publikoen lokalak.


## IRADOKIZUN, ESKAERA EDO ESKARIREN BAT BADUGU...

Helbide honetara idatz dezakegu:



[transkolore@gmail.com](mailto:transkolore@gmail.com)





## Kattalingorri

Gune irekia eta plurala da Kattalingorri, eta nagusiki Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualei Arreta eta Informazio Zerbitzua ematen lan egiten du.

Nafarroako LGTBI taldeak biltzen eta koordinatzen dituen erreferentziazko entitate irekia eta plurala da, eta urteak dira Nafarroan sexu eta genero orientazioarengatik diskriminazioaren aurka lan eta borroka egiten duela.

### NORA JO?



<http://www.kattalingorri.org/>



948 229 149 / 667 528 466



kattalingorriafarroa@gmail.com

### ZERTARAKO JOAN? GEURE BEHARRIZANEI ERANTZUTEN DIETEN ZERBITZUAK ETA BALIABIDEAK

Orientabidea edo informazioa eskatzeko jar gaitezke harremanetan, baina baita elkartean parte hartzeko ere.

Gaur egun Kattalingorri da Nafarroako Gobernuaren Kattalingune LGTBI zerbitzu publikoaren eta Iruñeko Udalaren Harrotu LGTBI zerbitzu publikoaren kudeaketaz arduratzen dena.

- LGTBI pertsonen giza eskubideak babesteko batzordeetan parte hartzen dute: E28J plataforman, LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Egunean, LGTBI Lege integral bat onartzeko LGTBI Batzordean, memoria historikoarekin zerikusia duten ekitaldietan, errebindikazio ekintzetan, etab.
- Lesbianen, gayen eta transgeneroen bizi kalitatea hobetzeko kanpainak egin ohi ditu.
- Sexuari eta generoari buruzko estereotipoak zalantzan jartzen dituzten kanpaina orokorrak antolatzen ditu.
- Prestakuntza eskaintzen du arlo sexologikoan eta LGTBIri dagozkion kontuetan.
- LGTBI pertsonen eskubideen alorrean aholkuak ematen dizkie elkarteei, alderdi politikoei, erakundeei, etab.
- Estatuko beste elkarrekin koordinatuta lan egiten du.



## NORTZUK DITUGU LAGUN PROZESU HONETAN ETA NOLA LAN EGITEN DUTE?

Berdinen arteko harremana da. Badakite zertaz ari garen, badakite gu nola hartu eta badakite gu nora bideratu. Betiere geure prozesuak eta geure genero identitatea errespetatuz tratatuko gaituzte.

## IRADOKIZUN, ESKAERA EDO ESKARIREN BAT BADUGU...





<http://www.kattalingorri.org/>




948 229 149 / 667 528 466



[kattalingorrinafarroa@gmail.com](mailto:kattalingorrinafarroa@gmail.com)








Instituzioetan eta elkarteetan laguntza bilatzeko prozesuan zehar, gidaliburu hau zuretzat mesedegarria gertatu izana espero dugu.

Askotariko gizarte baten eraikuntza, guztiok geure lekua izango dugun gizarte aberatsaren eta pluralaren eraikuntza, izan du gidaliburuak ipar. Ihes egiten utzi ez dezakegun aukera da transexualitateak eskaintzen digun ezinbesteko eraldaketa soziala.



Orain arte islatu nahi izan duguna da gizarteratu garen eta testuinguru, garai eta leku jakin batean gertatzen diren sinesmen, agindu eta arau multzo batek blaitutako esparruan bizi dela transexualitatea.

Eta hain zuzen ere hementxe bizi behar dugu ahalik eta ongizate handienarekin. Nola instituzioak hala gizarte erakundeak lagun izan ditzakegu askotariko bide hauek errazagoak gertatzeko.






ARAU  
ESPARRUA

ESPARRU  
KONTZEPTUALA

ESKUBIDE  
SEXUALAK


NABI



KATTALINGUNE  
HARROTU





CHRYSTALLIS



TRANSKOLORE



KATTALINGORRI



\*

Hemen bildutako erakundeetako departamentuak eta gizarte taldeak ez dira diren guztiak, ibilbide biografikoan topa ditzakegun batzuk baizik ez dira.







